

ASTELEHENEKO Goienkaria

2007ko urtarrilaren 8a > Astelehena > III. urtea > 128. zenbakia > 0,90 euro

www.goiena.net

"Ekonomiak behera eginda ere, ez die eragingo Industrialdeko enpresei"

Koldo Pereira
Debagoieneko Industrialdea > 06



G2a

Erdi Aroko aurkikundeak Eskoriatzan > 23

EUSKAL GATAZKA
Debagoienarren iritzia
Barajaseko atentatua eta gero > 05

ARRASATE
Abaroa egoitza berriaren proiektua onartu du Udalak > 10

OÑATI
Pediatria eta 24 orduko osasun zerbitzu eske sinadurak batzen > 12



ERRETA Itxura hau zuen Caixako bulegoak zapatu goizean langileek garbiketa lanak egin ostean.

JOSETXO ARANTZABAL

KALE ERASOA > LEHERKETA ARRASATEKO CAIXAN

Herritar eta dendariak, kale erasoak kaltetuta

KISKALITA Caixaren bulegoa erabat kiskalita geratu zen eta inguruko etxeetara zabaldu zen kea

LAGUNTZA Udalak eraso salatu u eta laguntzak emateko protokoloa jarri du abian > 2-3

BERGARA > HIRIGINTZA

Aurki, 327 etxebiziza berri

San Lorentzon egingo dituzte, eta auzoa guztiz aldatuko da > 11

FUTBOLA > ELKARRIZKETA

Jon Urtzelai, Vecindariok baja emanda

Jokalari oñatiarrak bere inpresioak kontatu dizkigu > 21

AURKIBIDEA

Asteko gaia > 03
Debagoiena > 04-05
Elkarrizketa > 06
Bertatik bertara > 07
Iritzia > 08
Herriak > 09-14
Kirola > 15-21
Kultura > 23-27
Saikatuak > 28
Irrati-telebista > 29
Berri zakua > 30-31
Azkena > 32

URA > URKULU, ASPALDIKO NEURRI BAXUENEAN

Euri faltagatik, arduratzeko arrazorik ez dagoela diote

Udazken eta negu lehorrak izan ditugu orain arte, eta Urkuluko urtegiari begiratuta, ondo igaritzen da hori: Debagoieneko herriak hornitzen dituen urtegia %56an dago beteta, 1996. urtetik izan duen mailarik baxuena.

Hala ere, oraingoz behintzat, larrizko arrazoirik ez dagoela eta lasai egoteko dei egiten dute

arduradunek. Hala, Gipuzkoako Ur Ustiapenen zuzendariak, Jose Saizarrek, dienez, "ez dago inongo arazorik, ur nahikoa dago eta Urkulun".

Hala ere, beti erantzukizunez kontsumitzeko dei ere egiten du Saizarrek: "Ura alferrik botatzeko ez daukagu, ea denok jabetzen garen horretaz", dio. > 09



Urkulu, egunotan.

A. ALTUBE

Barruan
Arizmendi Kirol Elkartearen futbol eta areto futbol posterra



www.euskoauto.toyota.es

Toyota Avensis berria

The quality experience



Toyota Avensis berriaren gama.

Hobetzeko aldatu egin behar da. Eta horretarako detaile txikiak asko zaindu behar dira. Toyota Avensis berria ekipamendu eta diseinu berriarekin dator, dinamikoagoa eta bizkorragoa.


Serieko ekipamendua:

- Aire-girogailu automatiko duala
- 9 aire-zaku (belauneko aire-zakua barne)
- VSC (egonkortasun kontrola) + TRC (trakzio kontrola) + BA (balaztatze asistentzia).
- Optitron instrumentazioa
- Irratia + CD irakurgailua, MP3 eta WMA irakurtzeko gauza da, bozgorailuak + aginte kontrola bolantean + prozesadore digitala + ASL (soinuaren oreka automatikoa).
- Aleaziozko hagunak
- Atzerako ispilu termoelektrokoak karrozeriaren kolorekoak. Elektronikoki tolesgarriak eta albo bateko keinu-argi integratuak

- Barruko ispilu elektrokromatikoa
- Argi eta euri sentsorea
- Cruise kontrola (1.8 WT-ak izan ezik)

Toyota Avensis berria, ondorengo akaberekin: Sol, Executive eta Sport.

Toyota Avensis bat daukazu 21.800 €-tik aurrera.

Toyota babesle ofiziala  LFP

TODAY TOMORROW  TOYOTA



FINANCIAL SERVICES



Kontzesionarioa

EuskoAuto

Olabarrena z/g BERGARA 943 76 23 85

BERGARA EUSKOAUTO ELORREGI

Publikoarentzako salmenta prezioa gomendatua Penintsulan eta Balear Uharteetan, biltegian dauden autoentzat. BEZa, garraioa, matriculazio zerga, kontzesionarioaren promozioa eta ekarpena barne. Prever Plana ez dago barne. Iragarrikiko modeloa: Toyota Avensis Wagon Sport. Kontsumo konbinatua 5,5 eta 9,6 l/100 km tartean. CO2 igorpena 146 eta 228 g/km artean.

ESANAK

"Bokartak gero ozpinetan ipintzeko baldin badira ez dio axola aurrez izoztea; hegaluzearen zaporea aldatu egiten da"

Koldo Lasa > Sukaldaria

"Legatzak edo antxoak izan dezakete anisakisa, baina tenperatura altuetan gertatzen direnez, hil egiten da zomorroa"

Sonia Berezibar > Sukaldaria

"Anisakisa ez da gauza berria, baina Euskal Herrian ez du sekula arazorik sortu, ez delako arrain gordinik jaten"

Alberto Elortza > Sukaldaria



SUKALDARIAK Koldo Lasa sukaldaria arraina gertatzen Bergarako jatetxean. Neurriak hartzeari ondo deritzo, anisakisa arriskutsua izan daitekeelako.

I.A.

OSASUNA > ANISAKIS PARASITOAREN GAINEKO DEKRETUA

Anisakiasis arrisku txikia dago gurean sukaldarien esanetan

JATETXEAK Gordinik edo gutxi eginda zerbitzatuko duten arraina aurrez zero azpitik 20 gradutan izozteko dekretua jarri dute indarrean

ZOMORROA Anisakis parasitua zomorrotxikia da: Hiru zentimetro inguru dituz luzeran, milimetro bateko diametroa du eta kolore zurikoa da

TRATAMENDUA Infekzioa handia izan arren, ez du heriotza eragiten, baina, larria bada, ebakuntza kirurgikoa egin behar izaten da

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Osasun eta Kontsumo Ministerioak derrigortu egin ditu jatetxeak arrain freskoa izoztera anisakis parasitoaren eragin kaltegarria gutxitzeko. Neurri horren arabera, jatetxeetan gordinik edo gutxi eginda zerbitzatuko duten arraina aurrez zero azpitik 20º-tan izoztu beharko da 24 orduz. Izan ere, arraina izoztuta, parasitua hil egiten da. Gainera, bezeroei jakinarazi behariko diete arraina izoztu egin dute.

Sukaldarien artean askotariko iritziak daude neurri honen gainean. Bergarako Lasa jatetxeeko sukaldari Koldo Lasak esan digunez, "dekretua indarrean jartzea ondo iruditzen zait, zomorroa arriskutsua delako. Baina egin behar dena da itsasoko kutsadurari aurrea hartu, arazoa bera hor dagoelako. Badira arrain zuriak zomorroa oso leku zehatzean dutenak, tripa aldean, eta ikus daitekeenez, kendu egiten da. Antxoa, hegaluzea edo atuna bezalako arrain urdin

batzuetan, ordea, zaila da ikustea. Nire menuetan arrain hauek erabiltzen ditudanez, aurretik izoztu egiten ditut. Bokartak gero ozpinetan ipintzeko, ez dio axola izoztea. Hegaluzearen kasuan, zaporea aldatu egiten da, baina ezin gara bezero bat kutsatzera arriskatu. Arrain zuria gutxi eginda eskatzen digutenean, bezeroei argi eta garbi esaten diegu zomorroa hiltzeko behar den tenperaturan gertatu behar dugula. Arraina bere puntuan zerbitzatzearen aldekoa naiz ni".

Sonia Berezibar Aretxabale-tako Baster Alde jatetxeeko sukaldaria da eta, bere esanetan, "betidanik egon da anisakis delakoa. Behi eroen kontua izan zen lehen, eta orain, anisakisarena. Itsasoa gero eta arrain gutxiago dagoenez, salerosketak jaisteko plazaratu dute kontu hau". Berezibarrek esan digu neurriak beti hartu izan dituztela: "Legatzak edo antxoak, esaterako, izan dezake anisakisa, baina tenperatura altuetan gertatzen direnez, hil egiten da zomorroa. Badira beste

arrain batzuek erdi prestatuta zerbitzatzen direnak, bokartak, esaterako, eta hauek arrisku handiagoa daukate. Kasu horietan nahiago dut, izoztu aurretik, bezeroei horrelako arrainak ez eskaintzea. Izan ere, arrain freskoa izozten denean, galdu egiten du berezko egitura".

Alberto Elortza Oñatiko Zelai Zabal jatetxeeko sukaldariak esan digu dekretu hori nahiko gaizki eginga dagoela eta gehiegizkoa dela. "Anisakisa ez da gauza berria, baina Euskal Herrian ez du sekula arazorik sortu, ez delako arrain gordinik jaten. Arazorik egotekotan, bokartekin, antxoa gazituekin edo marinatutako arrainekin egon daiteke, baina oso arraroa da. Gainera, anisakis parasitorekin infektatu den jendeak gaitza hartu du, parasitodun arraina jateaz gain, parasito horri alergia ziolako. Aurrez behi eroekin gertatu zen, hegaztien gripearekin ere, eta nik uste dut gaia pixka bat isiltzen denean amaituko dela kontua".

ALERGIA EDO URDAILEKO MINA

Anisakisa arrainetan eta itsasoko ugaztunetan bizi den zizarea da; besteak beste, berdela, legatza edo bakailaoa bezalako arrainetan. Arrain batzuetan ikusi egin daiteke zizarea eta, nazka sortzen duenez, kontsumitzaileak ez du jaten. Gertatu aurretik kentzeko aukera ere badago baina, hainbat kasutan, oharkabean pasatzen da. Izan ere, hiru zentimetro inguru luzeran da eta milimetro bateko diametroa baino ez dauka; gainera, kolore zurixka du.

Gizakientzat kaltegarria izan daiteke eta anisakiasis deituriko gaitza sor lezake. Arraina gordinik janez gero, parasitua baldin badu, urdaileko mina edo alergia eragin ditzake.

Infekzioa handia izan arren, ez du heriotza eragiten, baina, larria bada, tratamendua gogorra izan daiteke, ebakuntza kirurgikoa beharrezkoa delako.

Gurean, arraina jateko dugun moduarengatik, zaila da anisakiasis hartzea, baina kontuz ibiltzea ez da inoren kalterako.

Aurrea har dakioko anisakisari?

Anisakisa, ustez organismo erasokorra dena, plurizelularra da, hau da, izozte hutsez ezereztu daiteke. Parasitua suntsitzeko, nahikoa da 55 gradutik gorako tenperaturan gertatzea minutu batez edo zero azpitik 20 gradutan izoztea 24 orduz. Ozpinetan jartzen diren bokartak arriskutsuak dira. Izan ere, arrain freskoa da eta ozpinak kolore zuria ematerakoan parasitua ezkutitzen du. Arrain gazituek ez dute arriskurik gazitze prozesuan hiltzen delako zomorroa. Ketutakoak ere arriskutsuak izan daitezke, baina izokinei hezurak eta larbak kentzen dizkietenez, arriskua ezabatzen dute. Beraz, tentuz ibiliz gero, aurrea har dakioko gaitzari, eta hori da modu bakarra.

KALE ERASOA > ARRASATEKO LA CAIXAREN BULEGOAREN AURKA

Eztandak kaltetutako bizilagun guztiak ez dira etxera itzuli

La Caixako bulegoaren aurka aerosolez eta gasolinaz osatutako lehergailu bat zartarazi zuten

Arrasateko Udaleko alderdiek ekintza salatu eta kaltetuei laguntza eskaini die

IRATI AGIRREAZALDEGI > ARRASATE
Zapato goizaldean kale erasoak egin zituzten Arrasaten banke-teen aurka. Larriena Jokin Zaitegi plazako La Caixaren kontra aerosolez eta gasolinaz osatutako lehergai batez egindakoa izan zen. Bulegoak su hartu zuen, eta inguruko etxabeetako bizilagunak etxeetatik atera zituzten.

Arrasateko Udalak erasoak gaitzetsi egin du: "Jendeari kalterik egin ez arren, bizilagunak arriskuan ipini zituen erasoak; hori dela eta, elkartasuna adierazi nahi diegu. Bide batez, jakinarazi nahi dugu gauzak normaltasunera itzul daitezkeen baliabideak ipiniko dituela Udalak". Horretarako, bizilagunek Udaltzaingora jo beharko dute, eta bereziki gertatutako protokoloa jarraitu. Besteak beste aseguru kontuak egiten lagunduko die Udalak.

Arrasateko Udaleko alderdiek sinatutako idatziak dio: "Horrelako ekintzak demokrazian eta giza eskubideetan oinarritutako gizartearen alde dihardutenekiko mespretxuaren adierazle dira".

Arrasateko ezker abertzaleko ordezkariak esan digute sen-



KISKALITA La Caixaren bulegoa erabat kiskali zuten garrek; etxebizitzetan kaltetuena lehen solairua da. JOSETXO ARANTZABAL

titzen dutela auzokideak gaueko hamabietan etxetik kanpora bidali beharra, baina "hau ezin da irakurri ekintza soil moduan, testuinguru baten barruan baizik. Bizi dugun egoeraren aurrean emandako erantzunak dira eraso hauek, eta ezker abertzaleak behin eta berriz esan du medioak jarri behar direla horrelako gauzak ez gertatzeko edo inork beharrik senti ez dezan horrelako ekintzak egiteko. "Espainiatik esaten digute su-ete-na apurtua dagoela eta ezin dela ezer egin, baina guk pentsatzen dugu urratsak emanda daudela eta prest gaude ahalegin guztia egiteko egoera konpontzeko".

BIZILAGUNAK, KALTETUTA

La Caixa gaineko etxebizitzetako bizilagunak dira kalteak jasan dituztenak. Maite Urrutiak esan digunez, "hamabiak inguruan eztanda entzun nuen eta nirekiko pentsatu nuen: *hemen dira*. Orditik hotelean gaude, eta tratua oso ona dela azpimarratu beharra daukagu. Oraindik ezin gara etxera itzuli, etxea bera ondo dagoen arren, gasa eta beste zenbait baliabide ez dauzkagu-eta".

Banketxeko bulegoaren aldamenen Loramendi kirolak denda dago eta hemen ere izan dira kalteak. "Airezatze makinak dauden gelara sua sar-

tu zen, beraz, denda guztian ke beltza zabaldu zen. Arropa eta kirol oinetako guztiak hondatu egin dira, eta ezingo ditugu saldu. Gainera, aire hodi guztiak konpontzeko obra egin beharko dugu. Oso gogorra izan da, eta espero dugu honi aurre egiteko laguntzaren bat jasotzea", esan digu Loramendiko Itziar Uriartek.

Bulegoa zegoen eraikinaren egiturak berak ez zuen kalte handirik izan, eta jendez hustu zituzten hiru etxabeetatik bakararra dago oraingoz jenderik gabe. Hala ere, espero dute instalazioak konpondu eta datozen egunetan etxera bueltatzea.

LANDA > HILTEGIA

Hiltegiak 113.000 euro jaso ditu Aldunditik

lazko berritasunak finantzatzeko eta garbiketa sistema hobetzeko da dirua

A.G. > ARRASATE

Debagoieneko hiltegioko instalazioak hobetzeko 113.325 euroko dirulaguntza eman dio Foru Aldundiak Mankomunitateari. Diru horrekin, bi motatako hobekuntzak ordainduko dituzte: batetik, hiltegioko hozkailuak berritu eta abereak hiltzeko sistemak hobetuko dituzte, eta horretarako Mankomunitateak aurrekontuan kalkulaturako 155.526,21 eurotik 85.525 emango ditu Aldundiak. Esan behar da inbertsio hau Mankomunitateak egin duela dagoeneko; hortaz, aurreratutako diruaren gaineko dirulaguntza da.

Bigarrenik, ganadua eramateko ibilgailuak garbitzeko eta desinfektatzeko baliabideak hobetuko ditu Mankomunitateak; horretarako, 27.800 euroko aurrekontua dago, eta Aldundiak guztiz finantzatu du. Eusko Jaurlaritzak dekretu bidez behartzen ditu hiltegi guztiak desinfektatze baliabideak hobetzera.


Mankomunitateko ardura-dunen esanetan, lana aurreratu-ta dago: "Dagoeneko badaukaguna osatuko dugu, eta lan hori aurre egingo dugu. Beste hiltegi batzuek zerotik hasi behar dute".

LANDA GARAPEN ELKARTEA

Dirulaguntza horiek Gipuzkoako nekazaritzari eta abeltzaintzari laguntzeko diru-sorta baten barne daude. Hala, Deba Garaia landa garapen elkarteak 242.368 euro jaso ditu bere jarduerarekin jarraitzeko.

AP-1eko Arabako eta Gipuzkoako zatiak bat egin dituzte

Abenduaren 28an elkartu zituzten Isuzkitzako tuneleko bi aldeak Eskoriatzatik Gipuzkoa eta Araba batzen dituenak; argazkian, Diputatu Nagusiak agertzen dira lotura lekuan. Horrekin, autobideko lanen azken fasea hasiko da. Tunel bikoitza da Isuzkitzako, 3.377 metrokoa, eta EAEko luzeena izango da. 2004an hasi ziren tuneleko lanekin, eta abenduan ezkerreko tunela zulatzen amaitu zuten, Gasteizera doana. Beste noranzkoari oraindik 200 metro geratzen zaizkio.



POLITIKA > ETA-REN ATENTATUAREN ONDORENGOAK

Bake prozesuak jarraitu egingo duela diote Debagoieneko aditu batzuek

GIZARTEA Giltza herritarrek daukatela esaten dute galdetutakoek, baina batzuek gizarteari nekea igartzen diote

POLITIKARIAK Euskal Herriko eta Espainiako ordezkari politikoei inplikazio handiagoa eskatzen diete galdetutakoek

A.G. > BERGARA

Barajaseko atentatuak garai berri baten hasiera markatu du, izan ere, bederatzi hilabeteen ETaren geldialdia horrekin bukatzen zelako. Berriro ere guztion ahotan dago euskal gatazkaren oraina, eta geroa zein izan daitekeen.

Gertakari horren aurrean, denetariko iritziak piztu dira, eta horixe gertatzen da Debagoienean ere. Aldizkari honek galdetutako lagunek bat datoz esaten bederatzi hilabeteen euskaldunok bizi izandako itxaropena zapuztu egin dela esaten.

IRAKURKETA DESBERDINAK

Hala ere, su-etenaren bukaerak ez du ekarri bake prozesuaren bukaera, batzuen iritziz. Era berean, giltza gizarteak duela ados daude gehienak, baina, batzuk horrekin baikor diren artean, beste batzuek nekea sumatzen dute.

1. Zein ondorio nagusi ekarri du Barajaseko atentatuak? Bake prozesua apurtu egin da?

2. Zure iritziz, zer gertatuko da hemendik aurrera eta zeinek eman behar ditu urratsak?



Martin Garitano
KAZETARIA

1. Bake prozesua ez da amaitu, gizartearen premiak hor daudelako. Barajasekoa ez dakigu zer den: su-etenaren amaiera edo Espainiako gobernuari ETaren erantzuna.

2. Espainiako agintariak erabaki batzuk hartuko dituzte, Segi-Haika-Jarraia auziaz, adibidez, eta hor ikusiko da zein bide aukeratzen duten: orain arteko gogortasunarena edo bide berri bat.



Iñaki Beristain
BAKETIK FUNDAZIOKO KIDEA

1. Amaituta dagoela diote baina nik kristau eta gizaki bezala ezin dut etsi. Ez dakit hau amaitu den eta berri bati ekingo dioten ala noizbait honi jarraituko dioten.

2. Espero dut etorkizunari begira jarriko direla. Gertakaria sekulako galga izan da, baina aurrerago prozesuak jarraitu behar luke, ezin dugu lehengora, heriotzetera itzuli. Baina indarkeria dagoen tokian logika gutxi dago.



Mikel Irizar
HERRITARRA

1. Amaitu da eragileek ez dutelako elkartuta aurrera egin. Zabalik geldituko dira kanal batzuk eta landutako esparru komunak. Beste prozesu bat etorriko da, eta etena motzagoa izango da. Zapaterok urte bete barru ez du azterketa gaindituko gaia bideratu ezean.

2. Bolada batez, zakar aldia dator. De Juana aukerarik gabe gelditu da, inoiz izan badu. Udal hauteskundeak anormalak izango dira.



Jose Mari Velez de Mendizabal
IDAZLEA

1. Bake prozesurik egon ote den ere zalantzak ditut eta orain ezin jakin zer ondorio ekarriko dituen. Gizartearen etsipena ekarri du.

2. Gizarte zibilari dei egitea ondo dago, baina ordezkariak inplikazio handiagoa eskatu behar zaie. Etsipenetik ateratzeko denbora asko beharko da. Bakea justiziarekin eta askatasunarekin lortzen da.



Juanjo Alvarez
UNED-EKO ZUZENDARIA

1. Prozesua ez da bukatu, politikariek bakearen kultura eskasa badute ere. ETak badaki euskal herritarrok gatazkaren irtenbide negoziatua eskatzen dugula.

2. Ondorio politikoak izango ditu ezker abertzalearentzat eta guretzat. Datozen hauteskudentan aukera politiko bat gutxiago izatea demokratikoki trago garrantza da. Gizarteak prozesua gera ez dadin eska dezan ueña da.



Maria Agirre
KAZETARIA

1. Lehendik zeuden elkarriketarako zubi batzuk behintzat hautsi direla ematen du. Atentatuak bederatzi hileko itxaropenak zapuztu ditu.

2. Benetan orain arte zer gertatu den ez dakigu. Atentatuak justifikaziorik ez badu ere, bederatzi hilean beste aldaketarik ez da ikusi. Orain gizarte mobilizatzeko dei egiten dute, baina gizarteak askotan esan du zer gura duen.

JAIA > ERREGE MAGOAK DEBAGOIENEAN

Erregeak, ondo hartuak eta eskuzabalak ibarrean

Herritar ugari irten zen ibar osoan Errege Magoak agurtzera, eta zapatuan, patinak, panpin-kotxeak... atera zituzten umeek kalera

zen-eta kalera Meltxor, Gaspar eta Baltasar agurtzera.

BAKOITZEKO 140 EURO

Egubakoitzetik zapatara bitarteko gauean, Erregeek opariak banatu zituzten etxez etxe. Estatu osoan, ume bakoitzeko 140 euroko aurrekontua izan dute Ekialdekoek. Horrez gain, aurrean ez da besteak baino jostailu eskatuagorik, denarik egon da, eta betiko jostailuak eskatu dituzte gehien umeek.

Errege egunean bazebiltzan umeak kaleetan jostailuak estreinatzen. Besteak beste, patin pare ikusgarriak, panpinendako paseokotxe politak eta baloiak zerabiltzaten umeek; azken horien artean, futbolekoak ez ezik, errugbikoak ere bazeuden.



JENDETZA Goitik behera eta ezkerretik eskumara, Arrasate, Bergara, Aretxabaleta eta Oñati.

J. ARANTZABAL, M. ALTUBE ETA L. ZEBERIO

A.G. > BERGARA

Ekialdeko Erregeak egubakoitz iluntzean iritsi ziren Debagoienara, eta pozik joango ziren, harrera jendetsua izan zuten-eta; alboko argazkietan ikusten dira Arrasate, Bergara, Aretxabaleta eta Oñatiko kabalgatetako ume bana. Bereziki aipatu behar da Oñatiko kasua, han, ume eta heldu artean, jendetza handia irten

Koldo Pereira bergararra Debagoieneko Industrialdeko Gerentea da. Apirilean haurra izan zue-

netik lana banatu beharra izan badu ere, ardura horrekin jarraitzen du eta Debagoieneko Indus-

trialdeari buruz hitz egin digu. Bukatu berri den urtean, ibarreko industriaren inguruan gal-

detu diogu, eta urte berrirako Debagoieneko Industrialdeak dituen proiektuen inguruan ere.

Koldo Pereira > Debagoieneko Industrialdeko gerentea

"Ekonomiak behera egiten badu ere, Industrialdeko enpresei ez die eragingo"

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

Urtea amaituta, balantzea egiteko garaia da. Gustura amaitu du Debagoieneko Industrialdeak 2006a. Eta etorkizunari begira, gure eskualdean industrialde berriak garatzeko proiektu berriak ditu. Guzti horren inguruan hitz egin dugu Debagoieneko Industrialdeko gerente Koldo Pereirarekin.

Urtea joan da. Debagoieneko Industrialdeak ondo bukatu du?

Egia esan, nahiko ondo. 2006rako aurreikusitako proiektu gehienak burutu ditugu. Alde horretatik, nahiko pozik gaude.

Zeintzuk dira, etorkizunari begira, Debagoieneko Industrialdeak dituen proiektu nagusiak?

Bi dira esku artean ditugun proiektu nagusiak. Horietako bat Bergarako San Juan auzoan garatuko dugu. Bergarako Udalak eskatuta, Sprilurrek 300.000 metro koadroko terenoa erosi du. Ondoren, Sprilurrek 18.000 metro salduko dizkigu guri, eta guk eraikuntzak egingo ditugu. Gainontzeko eremua Sprilurrek berak eramango du. Edozelan ere, proiektu honek bere denbora eskatzen du. Gure ustez, hirulau urtetan amaituko dugu.

Esku artean dugun bigarren proiektua epe motzera gauzatu da. Orain sei urte, Arrasaten, Aramaiorako bidean, Markulete gunea garatzen hasi ginen. F-12 partzelako lehen fasea egin genuen. Bada, orain, partzela bereko bigarren fasea hasiko dugu. 18.000 metro koadro izango ditugu pabilioiak egiteko. Gure asmoak betetzen badira, datorren urtean hasiko gara pabilioiak saltzen.

Markulete guneko E-45 partzelan eraikitako pabilioi ia guztiak salduta daude. 31 pabilioi eraiki genituen, batzaz beste 300 metro koadrokoak; eta bat izan ezik, gainontzekoak salduta daude. Saltzeke geratzen den pabilioiak 1.600 metro koadro ditu.

Eskualdeko herrietan industrialdeak garatzeko erabakia nork hartzen du?

Udalak dira industrialdeak garatzeko erabakia hartzen dutenak. Ondoren bi aukera dituzte: terenoa enpresa pribatuen esku utzi edo, bestela, Sprilurrengana zuzendu. Bide hau aukeratzen badute, Sprilurrek Debagoieneko Industrialdearen esku uzten



Koldo Pereira, Debagoieneko Industrialdeko gerentea, pozik dago 2006ko jardunaldiarekin.

JOSETXO ARANTZABAL

BERGARA

"San Juan auzoan 18.000 metroko gunea eraikiko dugu. Lau urte barru amaitzea espero dugu"

du partzela horretan eraiki behar dena erabakitzeke aukera.

Debagoieneko Industrialdeak eraikitzen dituen pabilioi guztiak saldu egiten dira?

Gune zehatz baten pabilioia erosi nahi duen enpresari edo pertsonari hiru aukera ematen zaiz-

HELBURUA

"Eskualdeko herri guztietan industrialdeak garatzeko asmoa dugu, bakoitzean bere ahalmenaren arabera"

kio. Alde batetik, pabilioia alokatu egiten dugu. Bigarren aukera pabilioia erostea da. Hirugarren aukera erosketako alokairua da. Bide hau aukeratzen dutenei, bederatzi urterako kreditua ematen diegu. Urtez urte, ordaindu beharreko kopurua igotzen da.

HIRU AUKERA

"Pabilioiak eskuratzeko erraztasunak ematen ditugu; alokatu, saldu edo erosi-aloatu egin daitezke"

Hiru aukera hauek ematen ditugu sor daitezkeen enpresa berriei eta txikiei erraztasunak emateko. Aipatzekoa da Sprilurrek eta Debagoieneko Industrialdeak merkatuan dauden prezio libreen azpiko prezioak eskaintzen dituztela salmentarako eta alokairurako.

Gure helburu nagusia da Debagoieneko enpresa berriak sustatzea. Hortaz, samurtasunak eskaini behar ditugu.

Gaur egun, zenbat industrialde daude Debagoieneko?

Une honetan, zazpi industrialde daude: Oñatin, hiru; Aretxabaletan, bi; eta Arrasate eta Bergaran, bana.

Gaur egun, harremanetan gaude Eskoriatzako Udalarekin han industrialdea garatzeko. Aramaioko Udala ere zuzendu da guregana.

Alde horretatik, Debagoieneko Industrialdearen asmoa eskualdeko herri guztietan industrialdeak egitea da. Herri bakoitzak duen kapazitatearen arabera eraikiko ditugu.

Eskualdeko herri guztiak aipatu dituzu. Elgetan ez dago industrialderik?

Elgetako Udalarekin ere izan genuen harremanik. Baina Udalak industrialdea egiteko aukeratu zuen terenoa ez zen osorik bere jabetzakoa; pertsona pribatuak zeuden tartean. Hala, Elgetako proiektuan ez sartzea erabaki genuen.

2007an, ekonomiak behera egingo duela aurreikusi da. Horrek eraginik izango du Debagoieneko Industrialdean?

Ez dugu uste eraginik izango duenik gurekin zerikusia duten entitate eta enpresa txikiekin. Lehen aipatu bezala, enpresa berriak eta txikiak guregana zuzentzen dira pabilioia erosteko edo alokatzeko erraztasunak ematen ditugulako. Ez dira banketxeetara kreditua eskatzera joaten. Alde horretatik, ez dugu uste arazorik egongo denik.

Gure kalterako aipatu behar dugu gure pabilioietan hazi diren enpresa batzuk lekuz aldatu egiten direla. Enpresa hazi eta garatzen denean, beste herri batzuetara jotzen dute. Horrek bai egiten dio kalte Debagoieneko Industrialdeari.

Debagoieneko Industrialdeak zerikusirik du Garaia gunearrekin?

Ez, ez dugu harremanik. Garaia proiektu pribatua da. Mondragon Unibertsitateak, Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiak dira proiektu horren baitan daudenak. Debagoieneko Industrialdeak ez du zerikusirik.

oharrak eta deialdiak

BERGARA > 1956 urtean jaiotako- ek afaria egingo dute

Otsailaren 3an egingo dute, Zabala jatetxean. Izenematea Zabala jatetxean egin behar da (943 76 20 07) urtarrilaren 25a baino lehen. Afari egunean Fraisko zurin elkartuko dira, 19:30ean.

ARRASATE > Yoga ikastaroa Sanata- na Dharma eskolan

Yogako hastapen ikastaroa hasiko da gaur, astelehena, Sanatana Dharma eskolan. Apirilaren 5era arte luzatuko da eta eskolak asten birritan izango dira: astelehen eta eguaztenetan, 09:30etik 11:00etara, Doctor Bañez kaleko leian.

ESKORIATZA > 'Euskara ziberespazio- an' ikastaroa KZgunean

Euskarazko hiztegiak, liburuak... Interneten nola aurkitu irakatsiko dute KZgunean egubakoitzean. *Euskara ziberespazioan* du izena ikastaroak eta bi ordu iraungo du, 10:30etik 12:30era. Izenematea zabalik dago.

BERGARA > Sabel dantza eta sukaldaritzaren begetarianoa

Urtearen hasierarekin batera bi ikastaro antolatuko ditu Udalak. Sabel dantza urtarrilaren 12an hasiko da eta martxora arte iraungo du. Agorrosinen izango da, egubakoitzetan

18:30etik 20:30era. Sukaldaritzaren begetarianoa eta nutrizioa ikastaroa urtarrilaren 10ean hasiko da eta martxora arte iraungo du. Eguaztenetan izango da 18:30etik 20:30era. Argibide gehiago, kultura etxean.

BERGARA > Shotokan elkarteak sal- dutako loterian, saria

Shotokan karate elkarteak Gabonetan saldutako loteria saria jaso du. Sari hori kobratzeko Kutzak San Martin plazan duen bulegotik pasatu behar da gaurtik aurrera.

OÑATI > Hainbat ikastaro eman- go dituzte KZgunean

Zortzi ikastaro emango dituzte KZgunean urtarrilean barrena. Lehenengoa gaur, astelehena hasiko da eta hilaren 19an bukatuko da. Internet erabiltzen ikasteko ikastaroa izango da eta bi txandatan

emango dute, 09:00etatik 11:00etara eta 16:30etik 18:30era. Hurrengo ikastaroa hilaren 10ean egingo dute eta Internet bidez GKEekin nola kolaboratu aztertuko dute.

BERGARA > Sahararengaineko ikus- entzunezkoa

Kanpalekuetan errefuxiatuta dauden sahararren bizimoduaren gaineko ikus-entzunezkoa emango dute egunean, hilak 11, kultura etxean, 19:00etan..

ARRASATE > Haurdun daudenenda- ko segurtasun uhalak

Arrasateko Udaltzaingoak gogorarazten du haurdun dauden emakumeendako autoan ibiltzeko segurtasun uhal bereziak maileguan ematen jarraituko dutela aurten. Horiek hartzeko, jo IMira astegunetan 13:00etatik 14:00etara bitartean.

BERGARA > Igerilekuko txartela berritzeko deia egingo dute

2007an igerilekura-ko txartela mantendu zein berria egin nahi dutenek, derrigorrez pasa behar dute Agorrosinetik. Izan ere, 2006 urte bukaeran baja eman zaie herriko txartelei eta *m a n k o m u n a t u e i*. 2007rako txartela nahi dutenek datu pertsonalak eta kontu korrante zerbakia eman beharko dute Agorrosinen.

BERGARA > Bai Euskal Herriari tal- dearen zozketa

Bergarako Bai Euskal Herriari herri ekimenak marisko-jana egin zuen Gabon zahar egunean, eta zozketa egin zuten. Zerbaki sari-duna 1951 izan zela jakinarazten du ekimenak.

BERGARA > Euskara Batzordeak egindako egutegiak

Bergarako Udaleko Euskara Batzordeak 2007ko egutegiak kalera ditu: hormarako egutegi handia eta eskura edukitzeko txikia. Egutegiok herriko etxe, komertzio eta taberna guztietara bidaltzeko ahalegina egin du Batzordeak, baita baserri auzoetara ere. Hala ere, norabait iritsi ez badira edo norbaitek beste aleren bat behar izango balu, hemendik aurrera Udaltzaingoan eskuratu ahal izango du (Udaletxean).

etxeko leihotik



Leire Kortabarria
ASTELEHENEKO GOIENKARIAko erredaktore burua

Errealitatea ezin aurreikusi denean

N eurri handi baten, albiste zer izango den aurreikusi egiten dugu denok. Telebistako informatiboak ikusi aurretik ere askok asma dezakegu gutxi gorabehera zer esango duten, sasoiaren eta aurreko gertakarien arabera. Hala ere, beste askotan, albisteak gutxien uste dugun unean gertatzen dira, batzuetan onerako –bestela bizitza benetan aspergarria izango litzatekeelako–, baina beste kasu askotan, txarrerako; horren adibide, aste bukatu honetan Arrasaten gertatu dena, eta tarte honetatik kaltetutakoei elkartasuna adierazi gura diet. Bizilagun horiei inongo Errege egunik ez oparirik ez zien gozatuko bizi izandako une txarra. Gure eskualdea Espainiako telebistetan agertzeko arrazoi on asko bururatzen zaizkit, baina hain justu atzo agertu zen.

Asteburu honetako aurpegi ederra eta alaia, beste askotan bezala, Debagoieneko umeena izan da. Zapatua egun magikoa izan zen euren dagoen, goizean ohetik jaiki eta opari batzuk zain dituzula bezain gauza magikoagorik ez dagoelako. Errege Mago jakintsu horiek Ekialde Hurbiletik datoz. Handik ere albiste on gehiago etorriko ote dira laster...

"Arrasatear askori Errege egunak ez zizkien gozatuko bizi izandako uneak"

> Azpiegitura handiak ondo daude, baina xumeagoak ere zaindu behar dira. Gureko errepede erabilien batzuetan, gaez piperrik ere ez da ikusten. Gabonetako argi batzuk horra bideratu behar!

> Danbakako lehen edizioako final hura! Bart gauean gertatu zela dirudi, ezta? Bada, bi urte pasa dira. Onerako, jakina: gure taldeak hazi eta hobetu egin dira. Aurtengo partaide eta finalistei, animo!

debagoiendarrak kanpoan

Begoña Anduaga > Oñati

"Ikastetxeko lagunekin harremana gordetzen dut, zaila izan arren"

A.G. > OÑATI
Aspaldian bizi da Ingalaterran Begoña Aranguren oñatiarra, baina herriarekin harremana izaten jarraitzen du; hango lagun taldea dauka oraindik, eta ezagun da ere Pakeleku erretiratu elkarteke Ana Mari Chaconen alaba izateagatik. Gabonak Oñatin eman ditu.

Aspaldian bizi zara kanpoan, ezta?

Bai. Lehenengo aldiz 1991. urtean joan nintzen *au-pair* Ingalaterrara, ingelesa hobetzeko. Sei hilabeterako joan nintzen, gustatu egin zitzaidan eta beste sei geratu nintzen. Ordurako ezagutzen nuen gaur egun senarra dena, irlandarra bera. Orduz geroztik Ingalaterran bizi gara. Ezkondu, Oñatin ezkondu ginen, 1995ean. Bi seme-alaba dauzkagu.

Ingalaterran non bizi zarete?

Buckinghamshire-ko konderriko hiri baten, Highwycombe. Oso ondo kokatuta dago, Londrestik eta Oxford-etik ordu erdira dagoelako. Konderririk horretako hiri handiena da, gainera. 200.000 biztanle ditu.

Zelakoa da zure eguneroko bizitza?

Hango lagun batek umeendako zapata-denda bat dauka, eta hantxe nabil orain lanean. Horrez gain, umeekin alde batera eta bestera ibiltzeak hartzen dit denbora gehiena.

Ze alde dago hango eta hemengo bizimoduaren artean?

Hemen, kalean bizitzaren zati handia egiten da, eta umeek askatasun handiagoa dute kalean



GOIENKARIA

Ikastera joan, eta geratu
Ingelesa hobetzera joan zen Ingalaterrara Begoña Anduaga; 1991z ezkeror han bizi da, familiarekin.

bakarririk ibiltzeko; hemen gaude, adibidez, semeak ilusio handia izaten du plazara ogitara joateko.

Ingalaterran, aldiz, indibidualistagoak dira; lagunak baditugu, baina norberak bere bizitza egiten du. Horrez gain, han goizago hasten da eguna, eta goizago bukatu: 17:00etarako denak etxeratu dira, umei afaria ematen hasten naiz... Indibidualismo hori gusztatzen zait, bai.

Eta hemengo zeren falta igaritzen duzu?

Familiarena, batik bat; eta janariarena, herriko jaiena...

Hemengo janariak prestatzen dituzue?

Bai, bai; dilistak, babak, paela... egiten ditugu.

Urte asko daramazu kanpoan, eta Oñatiko lagunekin harremana gordetzen duzu?

Bai, horixe! Eskolako lagunekin egoten naiz, elkar ikustea zaila den arren. Hala, Gabonetan afaria egin dugu.

Seme-alabek ezagutzen dute ondo Oñati, euskara...?

Bai. Espainolez eta euskaraz ondo egiten dute. Euskarak ilusio handia egiten die. Olentzero ere ezagutzen dute; hasieran, arraro egin zitzairen, baina, opariak uzten dizkienez, ba, gustuko dute.

Amak, Ana Marik, antzerki taldearekin egin duen antzez-lana ikusi duzu?

Ez dut aukerarik izan, baina badakit herrian arrakasta handia izan duela.

kale inkesta

Gustura zaude Gabonetan Erregeek ekarri dizkizuten opariek?



Maitane Arantzabal
Ikaslea
Bergara

Bai. Pixama bat ekarri didate Erregeek. Ez nuen ezer berezirik eskatu, beraz, ekarritakoarekin pozik nago. Nire erregerik gustukoena Meltxor da. Olentzerok ere ekarri dizkit opariak: jostailuak eta arropa, aurtengoan.



Sara Moreno
Ikaslea
Bergara

Gustura nago, bai. Gozokiak, ur azpian ibiltzen den telegidatutako izurde bat, bitxiontzi bat eta dirua jaso ditut. Ez dakit zein erregek ekarri dizkidan, baina nik Meltxor dut gustuko. Olentzerok ere ekarri dizkit opariak.



Cristian Castelo
Ikaslea
Bergara

Pozik nago, bai. Alonsonen jokoa eta bolantea ekarri dizkidate, baita dirua eta kamiseta bat ere. Ez dakit ondo portatu naizen, baina Meltxor dut gustuko erregea, eta beharbada berak ekarri dizkit.



Iñaki Gonzalez
Ikaslea
Bergara

Oso pozik nago, bai. Game Boy-a eta ordenagailuan jolasteko hiru joko ekarri dizkidate. Eskutitza idatzi nien eta, urrutitik gidatutako hegazkina ekarri ez badidate ere, jasotako opariek gustura nago.

zorroztailea



Elena Laka

Egunerokotasunera

"Patata izan zen iazko urtean gehien igo zen elikagai freskoa, %20,99a, oliba olio berriz, %7,65a, Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioak argitaratutako datuen arabera. Hala ere, elikagai guztien artetik Euriborra nabarmentzen da, urtean zehar puntu bat egin baitzuen gora."

J.M. Urbarri
Gara > 2006-01-7



Urteak zortzi egun ditu oraindik, eta dagoeneko hamazortzi urteko mutiko korbatadun ongi orraztua bezain zaharra dirudi. Berritasun gutxi, ilusio gutxiago. Jaso ditugu opariak, umeen jostailuen piezak hasi dira apurtzen, turroi hondarrak zokoratuta geratu dira. Goizean goizetik eguneroko normaltasunera itzuli gara. Iritxi da beste urte sasoi berria, eta festa ondorengo ajeak astinduta, garaiko gaiak darabilkigu: buelta gimnasia, dentistarengana, konpromiso bariko elkarreratzetara. Orain beherapenak, laster San Sebastianak. Lehengo langileek zioten legez, bizitzaren borroka. Gaur egun ez dakit baten batek horrelako berbarik erabiltzen duen. Borroka hori, hala ere, gero eta hesi estuagoren barruan: urtarrila luuzuea da hurrengo soldata kobratu arte, ez diote alperrik aldapa esaten, soldata ez digute igo, edo ez behar hainbat, jakiak, argi-indarra, piszinako karneta, dena igo digute. Euriborrak ere, makilakada galanta! Bost urte euroarekin, duela bost urte baino pobreak, eta hala ere, gastatu eta gastatu. Gerrikoari apenas gertzen zaio zulorik. Hamar egun lehengo dieta hasteak, erretzeari uzteak, kirola egiteak, ilusioa sortzen zigun. Zahartu da urte berria, hiru kilo gehiago eta zigarro-paketea egunean. Putza, berriro ere.

Zipritin baikorrak? Horixe, zipritinak. Igartzen zaio apur bat egunari luzatzen, zinea ikusi ahal izango dugu Bergarako piszinetan (pizinetan!).

Horretzek dira egunotan herritarren hizpideak eta kezkek (etxean arazo larriren bat ez daukanak, jakina). Sasoiari eta munduko bazter honetakooi dagozkigunak. Horrexen guztien gaintetik oster, lainoa. Deitu nahi diozun moduan: deitu kezka, deitu gatazka, deitu indarkeria, deitu itxaropen zapuztua, deitu orain zer, deitu nahikoa da, deitu errua besteena da, deitu sufrimenduaren luzapena, berdin dio.

Garaia iritxiko al da lainorik barik, pataten prezioaren eta Euriborraren demaseko gorakadak kezka gaitzan. Nahikoa ez ote.

"Festa ondorengo ajeak astinduta, garaiko gaiak darabilkigu"

"Horrexen guztien gaintetik oster, lainoa. Deitu nahi diozun moduan"

irakurlearen txokoa

943 25 05 02

goienkaria@goiena.com

DEBAGOIENA

> Txirrindulariei seinaleak errespetatzeko eskaera

Irakurle batek txirrindulariek errepidean duten jarrerari buruz iruzkin bat egiteko jo du txoko honetara. Hark azaltzen duenez, "txirrindulari gehienek ez dituzte semaforoak eta trafiko seinaleak errespetatzen eta sarri arriskutsuak izan daitezkeen egoerak eragiten dituzte". "Bidegurutzeetan, errepidean, bidea eman behar denean... oso txirrindulari gutxi hartzen dituzte kontutan gainontzeko ibilgailuak eta baita oinezkoak ere", eta seinaleak errespetatzeko deia egin gura du irakurleak tartetarik.

BERGARA

> Autoa bigarren ilaran uzteko ohitura

Bergarako irakurle bat gidari askok autoa luzaroan bigarren ilaran uzteko duten ohituraz da kezka. Batez ere, Ibargarai kale osoan eta Kruz Gallastegin uzten direla autoak dio, eta "eragozpen ugari sortzen dituzte". Irakurleak gogorarazi nahi luke autoak, asko jota, e bi minutuz utz daitezkeela bigarren ilaran, eta "ez kafe bat hartzeko ordu erdi", gehitzen du ironikoki.

ARRASATE

> Araba etorbideko aparkalekuko irteera kaskarra

Araba etorbidean erreka aldera dagoen aparkalekuaz da kezka irakurle bat. Haren esanetan, handik irteteko dauden mailak oso kaltegarriak dira autoen azpiko aldeendako, eta Udalarri eskatzen dio irteera hori txukun dezan.

ustek uste

Irati Agirreazaldegi

Prezioak gora eta behera

Gabonei tiraka, urtearen atarian aldapa gehienok oinak lurretik altza ezinda igotzen duguna arrastaka. Behetik gorako aldapa urte berriarekin batera, baina bada beste malda bat doana goitik behera. Beherapenen aldapa, prezio guztiak beheraka, baina bila gabiltzan hura aurkitu orduko, kaka! Beherapenetan mila tranpa eta truko, baina denok erortzen gara kontsumoaren sarean konturatu orduko.

2007a ez da salbuespena, eta hainbat prezioetan inori ez diote egingo beherapena. Garraioa edo argia garestiago, guretzat kalte, klaro. Aldapa behetik gora, prezioak goitik behera, ez denak; petroleoaren salneurriaren aitzakian badira goitik are gorago egin dutenak. Urte berrian, zaharrak berri; baietz gure poltsikoek igerri.

Goienkaria

Argiraratzailera Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Leire Kortabarría Erredaktoria Mireia Bikuña, Jon Berebizar, Arantzazu Ezkibel eta Irati Agirreazaldegi Oinarrizko diseinua Goio Arana Diseinu arduraduna Alex Azkarate Maketazioa Imanol Soriano, Kepa Martelo Publizitate arduraduna Mireia Larrañaga Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazio arduraduna Agurtzane Gaintzarain

EGOITZA NAGUSIA

BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Oñalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABAETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaeta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 72 93
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-0088/04 • ISSN: 1697 3542 • Tirada: 5.000 ale

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Gipuzkoako
Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

Herriak

Arrasate > 10 Bergara > 11 Aretxabaleta > 13 Eskoriatza > 13
Antzuola > 14 Aramaio > 14 Elgeta > 14 Leintz Gatzaga > 14



> **BERGARA**
San Lorentzon 327 etxebizitza eraikiko dituzte; Tornilleria Deba Mekolaldera doa > **11**



> **ESKORIATZA**
Santa Marinako 31 etxebizitza tasatueterako 194 eskaera jaso ditu Udalak > **13**



> **ANTZUOLA**
Iñigo Ramirez de Okariz aukeratu dute EAJko batzarreko presidente berri > **14**



BEHERA Urkuluko urtegiaren nabarmen egin du ur mailak behera.

ARITZ ALTUBE

ARETXABALETA > URKULU URTEGIA BAXU

Urkuluko ur maila %56tik behera egon arren, ez dago kezkatzeko arrazoirik

UR MAILA

Orain dela hamar urte ur maila baxuagoa zen, %50ean zegoen, eta ia, %93,7an

ARAZORIK EZ

Nahikoa ur dago, 5.570.000 metro kubiko, eta ez dago kezkatzeko arrazoirik

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Kontuak asko aldatu dira gero urtebetean. Iazko urteberrian %93,7an zegoen Urkulu urtegia, eta ura askatu beharko zutela pentsatzen hasita zeuden arduradunak. Halaxe egin zuten Gipuzkoako zazpi urtegitan, baina azkenean, Urkulun ez. Urtebete eta gero, %55,86an dago, eta itxura kezka-garria dauka.

ORAIN 10 URTE BEZALA

Urkuluko urtegiak 10 mila metro kubiko har ditzake; orain, baina, 5.570.000 ditu. Zortzi herritara banatzen du ura, eta ia 66 mila biztanleren premia asetzen du: Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate, Oñati, Bergara, Soraluze, Elgeta eta Antzuolakoena, hain zuzen. Azken urteotan gorabeherak izan ditu ur mailak, baina hain baxu ez da egon 1996a ezker. Orduan

%50ean zegoen ur maila. 2002an, %69an egon zen; 2003an, %86an; 2004an, %76an; 2005ean, %88,9an eta ia, %93,7an.

Gipuzkoan gurea baino ur maila baxuagoa duen hainbat urtegi daude. Egoerarik kezka-garria %50etik behera daudenena da: Arriaranek %26,32 dauka eta Ibai-Ederrek, %34,56.

DATUA

%56

DAGO BETETA URKULU

Urkulu urtegia %55,86 dago beteta. 10 mila metro kubiko urendako lekua dauka eta 5.570.000 ditu orain. Ibarreko zortzi herritara iristen da, ia 66 mila biztanleren premiak

ESANAK

"Urkulun ez dago batere arazorik; baina ezin da esan ura zenbaterako dagoen, baldintzen arabera delako"

Jose Saizar > Gipuzkoako Ur Ustiapen zuzendaria

rik, nahikoa ur dago eta". Hala ere, zenbat denborarako dagoen aurreikustea ezinezkoa dela adierazi digu: "Zenbaterako erantzuteko, ze baldintzetan jakin behar da, horren arabera kontuak asko aldatzen direlako; hortaz, ezin dugu ezer aurreratu". Saizarrek, gainera, gogorarazi gura die herritarrei erantzukizunez kontsumitu behar dela: "Baina ez orain bakarrik; erantzukizunez beti kontsumitu behar dugu. Ura ez daukagu alferrik botatzeko, eta ea denok jabetzen garen horretaz". Hala bada, ez da egongo murrizketarik, baina behar dena bakarrik erabiltzeko deia egiten digu.

Eguraldi iragarpenen arabera, ez dugu euri formalik izango eguaztena baino lehen, eta, hasita ere, dezente egin beharko du urtegiaren zertxobait nabaritzeko.

ZERBITZUAK > KALE GARBIKETA

Kaleak garbitzeko lehiaketako izenematea, martitzenera arte

1.270.000 euroko (Balio Erantsiaren Zerga-BEZ barne) lizitazio prezioa du

Jasotako eskaintzak zabalduko dituzte urtarrilaren 17an, 11:00etan

UBANE MADERA > ARRASATE

Arrasateko kaleak garbitzeko eta antzerako hainbat zerbitzu egiteko lehiaketa deitu du Udalak. Azken 16 urteotan CESPAn enpresak egin ditu lanok, baina kontratua bukatu egin zaie.

Lizitazio hori eskuratzen duen enpresari beste zortzi urterako kontratua egingo dio Udalak, bi urtez luzatzeko aukerarekin; asko jota, hamar urterako, beraz.

Diru aldetik, gainera, eskaintza ez da batere makala, 1.270.000 euroko aurrekontua zehaztu du eta Udalak.

Lehiaketan parte hartzeko izena bihar, martitzena, baino lehen eman behar da, Biztanleen Arreta Zerbitzuan (BAZen). Irekia izango da lehiaketa; hortaz, interesa duen edozein aurkez daiteke.

KALEAK ETA BESTE GARBITU

Honakoa da lehiaketa irabazten duen enpresak egin beharrekoa:



PARKEAK Kaleak garbitzeaz gainera, CESPAn parkeak ere zaintzen ditu; argazkian, Santa Barbara parkea garbitzen. U.M.

espaloiak, kaleak eta oinezkoendako guneak garbitu; zakarrontziak hustu eta parkeak, eskaileak, eraikinen atzeko aldeak,

ikastetxeetako jolasguneak... oro har, lurzoru publikoan dauden gune guztiak garbitu beharko dituzte. Horrez gainera, bestela-

ko lanen artean, pintadak garbitu beharko dituzte, azoka txikia eta baita autoak garbitzeko gunea ere, Garagartzakoa.

GARBIKETA, EGUNEROKO ZERBITZUA

"Asko zikintzen dugu, inguruko leku guztietan antzera"

CESPAn enpresak 19 langile ditu Arrasateko kaleak garbitzen. Urteko egun guztietan ematen dute zerbitzua, astelehenetik zapatara 06:15etik 12:30ak arte, eta jaiegunetan, 06:00etatik 10:00ak arte, "ez dugu jaiegun bat bera ere hartzen, ezta Gabon zahar eguna, Urteberri eguna... ere"; hala dio CESPAn Arrasateko arduradun Paco Gartzia. Dio, ere, oraindik "asko zikintzen" dugula, "baina inguruko leku guztietan antzera; ez da Arrasaten

zikinagoak garela". Pipi-canak ez ditugula behar bezala erabiltzen ere badio: "Garro jenerala kalekoa apurtuta dago, Musakolako ere bai... Hala ere, guk bien mantentua egiten segitzen dugu". Guneei begirata, garbitzeko zailenak bizilagun gehien dituzten guneak dira, Gartziazen esanetan, "San Andres auzoa, adibidez". Bukatzeko, azpiegiturei dagokienez, Arrasate ondo hornituta dago, Gartziazen esanetan.

ZABORTEGIA

Ikutixoko zabortegiko proiektua, jendaurrean

U.M. > ARRASATE

Urtarrilaren 27ra arte Udaleko Hirigintza Sailean dago Ikutixon zabortegia eraikitzeke idatzi duten proiektua. Edozein herritarrek eskura dezake, irakurtzeko eta baita alegazioak egiteko ere.

Oro har, inguruko obretatik ateratzen dituzten lur soberakinak botatzeko behar du Udalak zabortegia, bereziki, Olandixoko tuneletik aterako dena botatzeko.

Bestalde, Mankomunitateak egindako azterketa baten arabera, industria ezartzeko lurzorua beharra dago gure ibarrean. Etorkizunera begira, gainera, ez da batere erraza izango halako lurzoria lortzea, are gutxiago espekulazio barik.

Hori horrela, Ikutixoko zabortegia bete eta gero, fabrikak eraikitzeke erabiliko dute gune hura.

> ZABORRA


Puntu Berde Mugikorra bakarrik Laubide plazan

Sukaldean erabilitako olio eta etxeko hondakin arriskuak batzen dituen zerbitzua, Puntu Berde Mugikorra bakarrik Laubide plazan izango da 2007an. Hamabostean behin etorriko da; hain justu ere, joan den egubakoitzean, hilaren 5ean hasita.

Abaroa berria, "herriari begira" egongo den eraikina

Biark Studio arkitekto enpresak aurkeztu dio Udalarari Abaroa berriarendako pentsatu duten diseinua eta onartu ere egin du Gobernu Batzarrek. Hori horrela, exekuzio proiektua egin eta hura onartu bezain laster has daitezke eraikitze lanak egiten.

Diseinu berritzailea aurkeztu dute, espazioei zabaltasunik handiena emateko eta energia berriztagarriak lantzeko "horregatik du teilatuak itxura hori, eguzkiaren energia aprobetxatzeko". Bestalde, "herriari begira" egongo den eraikina izango da, "orubetik aterako da, herrira begira".



BIARK STUDIO

ETXEBIZITZAK > BIZITEGI-AUZO BERRIA TORNILLERIA DEBA LANTEGIA DAGOEN TOKIAN

San Lorentzon 327 etxebizitza berri eraikiko dituzte, 68 babestutakoak

Etxeak eraiki aurretik, baina, Tornilleria Deba Mekolaldeko industria gunera joango da

217 etxebizitza libre, 57 tasatutako eta beste 68 babestutako egingo dituzte

ENEKO AZKARATE > BERGARA

Tornilleria Deba lantegiak gaur egun hartzen duen lursailean 327 etxebizitza eraikiko dituzte. 31.640 metro koadroko eremuan eraikiko dituzte etxeok. Bergarako Udalak, Tornilleria Deba enpresak eta Urartetxe enpresa etxegileak sinatutako hirigintza hitzarmenaren ondorioz izango da hori. Hortaz, San Lorentzo ingurua goitik behera itxuraldatuko da eta industria-gunea izatetik bizitegi-auzoa izatera pasako da.

LIBREAK, TASATUAK, BABESTUAK
Etxebizitza libreak, tasatuak eta babes ofizialekoak egingo dituzte. 207 etxebizitza libreak izango dira, beste 52 tasatuak eta 68 (84 ere izan daitezke, tamainaren arabera) babes ofizialekoak. Azken hauek errentan hartzeko izango dira, batez ere gazteen-dako. Izan ere, Bergarako Udalak ikusi du alokairuaren eskaera handia dagoela herrian, eta eskaera horri erantzun nahi dio proiektu horrekin.

Etxebizitza libreak eta tasatuak Urartetxe enpresak eraikiko ditu, eta babestutakoak eraiki-



AUZO BERRIA Goitik behera itxuraldatuko da San Lorentzo auzoa, Tornilleria Deba Mekolaldera eroaten dutenean.

E.A.

kitzeko lursaila Udalaren esku geratuko da, berak eraikitze lanak adjudikatuko.

LANTEGIA LEKUZ ALDATUKO DUTE
Hori egin ahal izateko, ordea, Tornilleria Deba lantegia Mekolalden egin behar duten industria gunera berrira eramango dute. Lekualdaketa 2007ko udan egiteko asmoa dute. Industria gunera berri horretan kokatzen den lehenengo enpresa izango da Tornilleria Deba. Hain justu ere, Narbaiza ehungintza zegoen tokian eraikiko dituzte lantegi berriko pabilioiak. Mekolaldeko industria gunea ekimen pribatukoa izango da eta Mekolalde-

detik Murinondoraino luzatuko da, Deba ibaiaren eskumako aldean. Inguru hori ere erabat itxuraldatuko da. Izan ere, batetik, zubi

berria eraikiko dute industria gunerako eta une honetan eraikitzen diharduten araztegirako. Urbanizazio lan horiek udarako amaituta izatea espero da, Tornilleria Deba orduan joango da eta hara, eta, bestalde, Bergarako ur zikinak garbituko dituen araztegia ere ordurako amaituta egotea aurrez ikusi dutelako.

INORK EZ DU ALEGAZIORIK JARRI
Bestalde, lurzorua lege berria indarrean jarri zenetik hitzarmen hori izan da Gipuzkoan sinatutako lehena. Lege berriak dio osoko bilkurak hitzarmen bat onartzen duenean, Gipuzkoako

DATUA

2

MILIOI EURO

Bergarako Udalak 2.066.187 euro jasoko ditu, lursailaren hirigintza aprobetxamenduari %10ari dagokiona. 638.187 euro dirutan; gainerakoa, etxebizitzaren bitartez.

Aldizkari Ofizialean egon behar duela 20 egunez, norbaitek alegazioak jarri gura baditu. Inork ez du alegaziorik jarri, eta horregatik sinatu zuten hitzarmen hori Gabonen aurretik.

INDUSTRIA GUNE BERRIAK

Mekolaldekoa ez da izango etorkizunerako aurrez ikusi den Bergarako industria gunera berria. Spri-lurrek -Euskal Autonomia Erki-degoan Industrialdeak bultzatzen dituen erakundea- Bergarako bi tokitan dauka pentsatuta Industrialdeak kokatzea: bata San Juan auzoan, gaur egun Geysler Gastech lantegia dagoen atzeko aldean, 300.000 metro koadro erabilgarri izango dituen; bestea, Ipiñarri baserriaren goiko aldean.

ETXEBIZITZA GEHIAGO

Datozen urteotan Bergaran etxebizitza ugari egingo dituzte. Horietako asko, gainera, babes ofizialekoak izango dira. Urteagan, babes ofizialeko 120 egingo dituzte, horietatik 100 Movillas lantegia zegoen lursailetan; Amategi-Gabirian, Miguel Altuna ikastetxe berriaren ondoan, beste 60 egingo dituzte babes ofizialekoak; San Lorentzon, esandako moduan, beste 68 (84 ere izan daitezkeenak); azkenik, San Antonion, Kamineruen etxea izandakoaren lursailean, beste 38 etxebizitza babestu eraikiko dituzte, Foru Aldundiak bultzatuta. Horietatik zortzi errentan emateko izango dira. Etxe horiek eskuratzeko izena emateko epea aurki irekiko da, eta Diputazioak nahi du lehenbailehen adjudikatzea. Etxe guztien %40 Bergaran errolatuta daudenendako izango da, eta gainerakoa Gipuzkoako beste herrietakoendako.

> PILOTA

Udalak ez dio dirurik ordainduko Asperi pilota jaialdiengatik

Bergarako Udalak eta Aspe pilota enpresak adostu dute Bergarako Udalak ez duela ezer ordainduko Asperi pilota jaialdiaren antolatzearen. Azken bi urteotan Bergarako Udalak 1.200 euro ordaindu dizkio Asperi antolatzen zituen lehen 15 jaialdiko. Guztira, hortaz, 18.000 euro ordaindu dizkio urtean. Aurten ezere ez. Hori bai, Bergarako Udalaren ardura izango da pilotalekuan mantenua. Iaz egin zituen Bergarako Udalak azken berritze lanak pilotalekuan: eserleku berriak jarri eta aldageletan pilotarietako eskuak berotzeko orma bat egin zuten. 2006 urtean, guztira, 33 pilota jaialdi antolatu zituen Aspe Udal pilotalekuan.

> ZINEMA

Euskal zinema ikusgai Agorrosinen, Jardun elkartearen eskutik

Euskarazko filmak ikusteko aukera izango da urtarrilean Jardunen eskutik. Herrian zinema aretorik ez dela eta, DVD formatuan proiektatuko dira Agorrosingo ekintza guneko ikus-entzuzkoen aretoan. Honako filmak ikus ahal izango dira: Urtarrilaren 13an eta 14an, zapatu eta domeka, *Kutsidazu bidea*, *Ixabel*, Mireia Gabilondo bergararra, zapatuan, 17:00etan, 19:00etan eta 22:00etan eta domekan, 17:00 eta 19:00etan; hurrengo asteburuan, hau da, 20 eta 21ean, *Nomadak TX*, hau ere ordutegi berarekin. Sarrerak euro batean jarriko dira salgai. Emanaldi bakoitzerako 100 sarrera jarriko dira salgai.

> TURISMOA

Aurreko urtean baino %15,8 kontsulta gehiago Turismo Bulegoan

Aurreko urtean baino 616 kontsulta gehiago jaso dira 2006an Turismo Bulegoan, zabalik egon den 160 egunetan. Guztira, 4.511 lagunek bisitatu gaituzte (2005ean, 3.895 izan ziren).

Estatuko beste herri batzuetatik etorritakoen bisitak nabarmendu dira. Eta azpimarratzekoa da Madrildik etorritakoak inoiz baino gehiago izan direla, aurreko urtean baino 338 gehiago (%124 gehiago). 701 lagun etorri dira 2006an Madriletik. Osterantzean, katalanak izan dira kanpotik etorri diren artean gehienak: 811, aurreko urtean baino %28 gehiago. 129 bisita gidatu antolatu dira Turismo Bulegotik eta hauetan 1.310 lagunek hartu dute parte.

> DIRU-LAGUNTZAK

Kultura taldeendako diru laguntzak eskatzeko epea zabalik

Bergarako Udalak herriko kultura talde eta elkartei banatzen dizkien diru-laguntzak jasotzeko eskariak egiteko epea urtarrilaren 15ean amaituko da. Udaletxe-ko sarrera erregistroan aurkeztu behar dira memoriak. Txosten horretan zera jaso behar da: jarduera guztien zerrenda eta bakoitza zein hizkuntzatan egin den; programatutako jardueren dokumentazio grafikoa (kartelak, esku-programak, prentsa oharra, liburuxkak...); izandako gastuen faktura originalak edo kopia konpultsatutakoak; eta emaitza ekonomikoaren memoria eta balantze erreala (diru-laguntza 3.000 eurotik gorakoa denean bakarrik).

> UDAL MUSIKA BANDA

Bandak 175. urteurrena ospatzeko ekintzen berri emango du

Bergarako Udal Musika Bandak 175. urteurrena du aurten, eta egingo dituzten ospakizunen berri emango dute bihar, martitzena. Horretarako prentsaurrekoa egingo dute udaletxean, 19:00etan.

Euskal Herriko bandarik zaharrenetarikoa da Bergarako. Horregatik, eta urteurren berezi hau ospatzeko, besteak beste, bandaren zortzi kantu jasoko dituen diskoa aterako dute; zazpi Miguel Gonzalez Bastidarenak dira, eta bestea, Alfredo Gonzalez Chirlaquerena. Bestetik, bandaren historiaren gaineko liburua argitaratuko dute, Juan Luis Bikuña kazetari bergararrak idatzitakoa.

ZERBITZUAK > OSASUN ETXEA HOBETU GURAN

Sinadurak batzen hasi dira osasun etxean zerbitzu hobea eskatzeko

Hamar mila biztanletik gorako herriei 24 ordutako zerbitzua dagokie, baina Oñatik ez dauka; horixe eskatu gura dute herritarrek

Pediatra bakarrak ezin dituela ume guztiak ondo hartu diote, eta orain, gainera, medikuntza orokorreko medikua ekarri diete haren orde

MIRARI ALTUBE > OÑATI

Osasun etxean ematen duten zerbitzua hobetzeko sinadura bilketa egiten hasi dira herritar batzuk. Hainbat kexa azaldu eta, batez ere, bi eskaera egin gura dituzte: beste pediatra bat jartzea eta osasun etxean 24 ordutako zerbitzua izatea.

ARRETA ETENGABEKO GUNEA

10 mila biztanletik gora ditu Oñatik, eta antzeko beste herri batzuetan ez bezala, osasun etxean ez daukate larrialdiak atenezko zerbitzurik (PAC). Orain urte batzuk ere eskaera bera egin zuten herritarrek sinadurak batuta, eta orduan, zerbitzua 17:00etatik 20:00ak arte luzatzea lortu zuten. Hala, 08:00etatik 20:00etara dago zabalik, baina hortik aurrera Debagoieneko ospitalera jo behar dute, Arrasatera. Sinadura batzearen ekimena abian jarri duen Argiloain Perosterenaren esanetan, Oñatik derrigor izan beharko luke 24 orduko zerbitzua: "Osakidetzak jarri edo ez azterketa egin zuenean Lagun Aron zeuden herritar asko, eta hori izan zen ez jartzearen arrazoia. Orain, baina, Lagun Aroko guztiak Osakidetzan sartu dituzte, hortaz, derrigor behar dugu zerbitzua".

PEDIATRA BEHARRA

1.300 ume inguru bizi dira Oñatin eta pediatra bakarra daukate. Horri laguntzeko bi orduz beste mediku bat jarri diete oraintsu, 10:00etatik 12:00etara, baina ez dela nahikoa uste dute askok. Gainera, pediatra bera ere ez dago orain, eszedentzia hartu duelako. Pediatraren hutsunea betetzeko, medikuntza orokorreko medikua jarri diete, eta guraso asko haserre dira.

Perosterenak sinadura batzearen ekimenaren zergatiak azaldu gura ditu: "Egunotan ume asko egon dira gaixorik Oñatin, sanok baino gehiago zirela gaixoak esango nuke. Horregatik Debagoieneko ospitalera bidali gaituzte guraso batzuk. Han, oster, haserre dabilta lan asko pila-tzen zaielako", dio, eta gaineratu du: "Eurek esan zidaten zerbitzua handitzeko eskaera egiteko herritarrok, eta handik bueltan, gehiegi pentsatu barik, jarri nuen abian sinadura batzea", azaldu digu.

Orain arte, sinadura asko batu dituzte eta herritarrek interes handia erakutsi dute; hala dio oñatiar horrek.

ESKAERAK, OSAKIDETZARA

Udalak, bere aldetik, herritarrek ahal den zerbitzurik onena



OSASUN ETXEA Emakumea osasun etxetik atera berri.

M.A.

izatea gura du, eta, alde horretatik, babesa emango dio ekimenari.

Bestalde, osasun etxeko zuzendari Santiago Aietxu medikuaren esanetan, eskaintzen duten zerbitzua ona da; era berean, ulertzen ditu herritarren kexak eta eskaerak. Hala ere,

osasun etxean, bertan, ezin dute ezer egin, eta eskaerok Eusko Jaurlaritzara bideratu beharko dituzte. Bestalde, Gipuzkoa Mendebaldeko Osakidetzako zuzendaritzak dio arrazoi estrategikoak eta eraginkortasunekoak erabiltzen dituztela zerbitzu jarraia non ipini erabakitze, eta Oña-

tik ez dituela baldintza horiek betetzen; PAC gunea duen ibarreko herri bakarra Bergara da.

"Ez dakit ze pasoa eman behar ditugun hemendik aurrera, baina seguru egon eskaerok eta jasotako sinadurak behar den tokira iritsiko direla", adierazi du Perosterenak.

HIRIGINTZA > GARAJEAK

Kalegoieneko 28 garaje zozkatuko dituzte eguenean

Guztira, 117 garaje daude; gainerakoak beste zozketa baten banatuko dituzte

arabera aukeratuko du bakoitzak garajea. Irekiak dira guztiak, eta hiru neurri eta prezio-takoak daude: 17.150, 18.350 eta 18.950 eurokoak, gehi BEZ.

BIGARRENA, ZABALAGOA

Lehenengo zozketan parte hartzeko, hainbat baldintza bete behar ziren: besteak beste, Oñatin erroldatuta egotea, garajerik ez edukitzea... Hurrengo fase baten, Oñatiko beste edozein bizilagun sartu ahal izango dira zozketan. Lehenengo, baina, osoko bilkurak onartu behar ditu baldintza berriak.

A.G. > OÑATI

Kalegoieneko 28 garaje zozkatuko ditu Udalak eguenean, hilak 11, udal areto nagusian, 17:00etan. Garajeak 117 dira guztira, baina, egun horretan, baldintza guztiak betetzen zizuten 28 eskatzaileek bakarrik hartuko dute parte. Ordenaren

EUSKARA > IDAZTARAUAK

Oñatiko eran idazteko argibideen gida kaleratu du euskaltegiko Berba taldeak

Herriko ikastetxeetan banatu dute, baina interesa duten herritar guztiek euskaltegian eskura dezakete gidaren ale bat

A.G. > OÑATI

Idazle, kazetari, irakasle eta, oro har, Oñatiko berban idatzi gura duen herritar guztiakin pentsatuta, Oñatiko eran eskribituko argibidiak izeneko gida kalera-

tu du Oñatiko euskaltegiko Berba taldeak, hain zuzen, herriko hizkeraz arduratzen denak. Liburuxka hori euskaltegian bertan eskura daiteke (943 78 24 96 da hango telefonoa).

Oso lodia izan gabe -18 orri ditu-, Oñatiko berbaren gainean jakin beharreko guztiak batzen ditu: bustidurak; zalantzak sortzen dituzten aditz batzuk; Oñatiko hizkeraren bereizgarri diren fonetismoak... Oro har, Berba taldearen aholkua da herriko hizkera gordetzea, baina erdarakadak baztertuta eta euskara batuaren erreferentzia moduan hartuta.

OREKA GORDE

Gidaren sarreran, gogoeta bat egiten du Berba taldeak: "Oñatiko berbetiari eusteko, herriko euskeran eskribitten erakutsi biharko litzake (...). Bestela, erakusten ezpada, eta irizpiderik emuten ezpada, hizkuntzia gero eta sakabanatuago egongo da", diote.

"Oñatiarron euskeriaren ezaugarriak jaso, gorde eta errespetauko zittuain arau batzuen billa ibilli gara, gure euskeria eta euskera batuaren arteko orekiorri eusteko asmua-gaz", gaineratzen dute.

ARETXABALETA > ITURRIONDO PARKEA BERRITUKO DUTE

Ibilbidea egingo dute Iturriondo parke inguruan

Arkarazora bidean dago parkea, eta txukundu ostean ibilbidea egingo dute Iturriondotik gora Urkuluraino joateko oinezkoak

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Hitzarmena sinatu dute Udalak, Basoa Fundazioak eta Kutzak Iturriondo parkea berritzeko. Arkarazora bidean dagoen parkeak 11.000 metro koadro ditu, eta berria ez bada ere, inork gutxi ezagutzen du. Horregatik berreskuratzea du helburu Udalak.

TXUKUNKETA LANAK

Anjel Loidi aretxabaletarra hasi zen lanean Iturriondon orain urte batzuk. Zuhaitz eta zuhaixka asko landatu dituzte ordutik hona bere aholkuz, baina biziberritu beharra dauka. Horregatik, Loidi bera hurreratu zen Udalera eskaera egitera.

Sinatutako hitzarmenaren arabera, hainbat lan egingo dituzte: zuhaitzen izenak eta parkearen informaziorako panelak jarri, bideak egokitu, eta hesi eta itxiturak jarri. Ondoren, ibilbide bat egingo dute parkean hasi eta Urkuluraino joateko. Hala, lehendik eginda dagoen bidegorriarekin zirkuitua osatuko du.

Basoa Fundazioak kudeatuko ditu udaberrian hasiko dituzten lanok, eta 40 mila euroko kostua daukate. Kutzak hartuko du bere gain guztia.



ITURRIONDO Mota askotako zuhaitz eta zuhaixkak daude parkean.

M.A.

ARETXABALETA > ABENDUAREN 30EAN AURKEZTU ZUEN BATZARRAK BATZOKIAN

Arritxu Oliden izango da maiatzeko hauteskundeetarako EAJko alkategaia

Gainontzeko hautagaien zerrenda oraindik osatzeko daukate, baina jakina da zinegotzi batzuek ez dutela jarraituko

JON BEREZIBAR > ARETXABALETA

Abenduaren 30ean aurkeztu zuen Aretxabaletako EAJ alderdiko batzarrak maiatzeko udal hauteskundeetarako alkategaia. Hala, Arritxu Oliden egungo alkatea izango da EAJko hautagaia datozen hauteskundeetan ere. Abenduaren 11n aukeratu zuen Aretxabaletako batzarrak aho batez Olidenean kandidatura, eta hark onartu egin zuen. Aurkeztuko diren zerrenda osoa, hala ere,

osatu barik daukate, baina, ekitaldian aurreratu zuten, otsailako prest izatea gura dute jeltzaleek. Hala ere, egun Udalean dauden zinegotzi batzuek adierazi dute dagoeneko datorren legegaldian jarraitzeko asmorik ez dutela. Oraindik ere erabaki barik dago EAJekin batera aurkeztuko ote diren baina, alderdiko arduradunek ekitaldian agertu zuten, euren nahia egungo hirukoari eustea da.

PLAKA BANAKETA

Abendu amaierako ekitaldian, era berean, EAJk udalbatzan dituen sei zinegotzietatik lauri plaka banatu zien legealdi honetan egindako lanarengatik eskerrik emateko. Gainontzeko zinegotziek ezin izan zuten ekitaldira joan.



ARRITXU OLIDEN Berriz ere alkategai izango da.

GOIENKARIA

> ARETXABALETA

Gipuzkoako Urrezko Domina jaso zuen Itziar Astiazaranek

M.A. > ARETXABALETA

Aldundiak urtero ematen duen Urrezko Domina Itziar Astiazaran aretxabaletarrak jaso zuen abenduaren 27an, Donostian, Pedro Miguel Etxenike eta Andoni Egañarekin batera. Joxe Joan Gonzalez de Txabarri Ahaldu Nagusiaren eta Juan Jose Ibarretxe lehendakariaren eskutik jaso zituzten.

FARMAZIAKO DEKANOA

Nafarroako Unibertsitateko Farmazia fakultateko dekanoa da Astiazaran, eta Elikadura eta Bromologian katedraduna. Orintsu, Farmaziako Akademia Nazionalako kide egin dute. Gainera, 23 ikerketa lanetan jardun du, eta zazpi liburu argitaratzen lagundu du. Hain zuzen "ikerketaren bikaintasun eta kalitatea" ezagutaraztea izan du helburu dominak.

ESKORIATZA > ETXEBIZITZA

Etxe tasatuetaarako 194 eskaerak aztertzen hasiko da Udala

Santa Marinan 31 etxebizitza tasatu egingo dituzte, eta horien zozketan parte hartzeko 194 eskaera jaso dituzte

A.G. > ESKORIATZA

Santa Marinako 31 etxebizitza tasatuendako 194 eskatzaile aurkeztu dira, eta etxebizitza esku-

ratuko dutenak zeintzuk diren apiril bukaera inguruko zozketan jakingo da. Etxebizitzak eurak otsail bukaera edo martxo hasiera inguruan hasiko dira eraikitzen.


Hala ere, zozketan ez dira derrigorrez 194 eskatzaileak sartuko; orain, eskaerak aztertu behar dituzte baldintza guztiak betetzen dituzten ikusteko.

BOLIBAR ETA MENDIOLAKO BIDEA

Bestelako berririk izan da Eskoriatzan Gabonetako oporretan

zehir. Hala, besteak beste, Foru Aldundiak onartu egin du Bolibar auzoko errepidea (GI-3344) eta Mendiola (GI-3345) konponetzea. Abenduaren 26ko Diputatu Kontseiluak hartu zuen erabaki hori. Era berean, 200.000 euroko dirulaguntza onartu du San Juan kale bukaera egiteko.

Zoritxarrez, albiste guztiak ez dira onak: Gabon gauean apurketa larriak egin zituzten ezezagun batzuek. Hain zuzen, Olenzeroren txabola apurtu zuten, eta udaletxeko kristal batzuek ere.



ITXURA Santa Marinako etxebizitzek honako itxura izango dute.

GOIENKARIA

ANTZUOLA > JELTZALEEK HERRI-BATZARRA BERRITU DUTE

Iñigo Ramirez de Okariz da EAJko batzarreko presidente berria

Herriko batzarra berritu dute urte amaieran jeltzaleek, "aspaldi" zuten asmoa betez

Hauteskundeetara begira, oraindik ez dute alkategairik aukeratu, ez zerrendarik osatu

JON BEREZIBAR > ANTZUOLA


Abenduaren 29an berritu zuen Antzuolako Eusko Alderdi Jeltzaleak batzarra. Urteko batzarrarekin batera, kargu berriak erabaki zituzten, "alderdia berritzeko aspaldiko nahia betez", dio Iñigo Ramirez de Okariz presidente aukeratu berriak. Alderdiaren zuzendaritzan jende berria sartzea izan da jeltzaleen nahia eta, horregatik, presidentez gain, idazkaria, kontuhartzailea eta batzordekideak aldatu dituzte.

Iñigo Ramirez de Okariz izango da, beraz, presidente berria, Florentino Lamarianok orain arte izandako kargua hartuta, eta harekin batera jardunean egongo direnak Mikel Larrea, idazkari moduan; Basilio Ormazabal, kontuhartzaile moduan; eta Jesus Agi-

rre eta Florentino Lamariano, batzordekide gisa, ibiliko dira.

HAUTESKUNDEETARA BEGIRA

Zuzendaritza berriak datozen hileetan izango duen lanik garrantzitsuena maiatzeko hauteskundeak prestatzea izango da. Hain zuzen ere, Jose Angel Zabalo, egungo alkateak, adierazi du nahiago lukeela, osasun arazoak direla-eta, ez jarraitu, baina erabakia alderdiaren esku laga du. Zuzendaritza berriak ez du oraindik erabakirik hartu, eta oraingoz, ez dute batzarra deitzeko datarik ezarri, Ramirez de Okarizek argitu bezala. Lehen pausoa izango da alderdiaren herriko batzarra, eta horren ostean aukeratu dituzte alkategaia eta zerrenda.



IÑIGO RAMIREZ DE OKARIZ Florentino Lamarianoren lekua hartu du. GOIENKARIA

LEINTZ GATZAGA

Gasteizera irteera lineako autobusean

I.A. > LEINTZ GATZAGA

Gatzagako Gurel Guraso Elkarteak iazko abenduan izendatu zuen zuzendaritza talde berria, eta Gabonetako oporrak aprobetxatuz, egin dute ekintzarik. Gabon egunean, Olentzerorekin kantura atera ziren Gatzagako neska-mutikoak herrian barrena.

ZERBITZUA PROBATZEKO

Bestalde, urtea ondo hasteko Gasteizera irteera egin zuten urtarrilaren 4an. 19 ume hainbat gurasorekin joan ziren. Txikienek Txikiparkean egin zuten jolas eta besteak izotz pistan ibili ziren patinatzen. Guraso elkartetik esan digute pozik daudela bidaia lineako autobusean egin zutelako. "Behingoz joan-etorria autobusez egiteko aukera daukagunez, aprobetxatu egin dugu. Guztiok ez ginen sartu eta batzuek autoetan egin zuten bidaia. Baina irteera, ondo pasatzeko ez ezik, lineako autobusa probatzeko ere izan zen".

ARAMAIO > KULTURA

Herritarrek egindako egutegia argitaratu eta etxez etxe bidali berri du Udalak

Argazki lehiaketa irabazi zuten hiru argazkiekin eta finalista geratu ziren beste bederatzirekin osatu dute egutegia

UBANE MADERA > ARAMAIO

2007ko egutegia argitaratu eta etxez etxe bidali zuen Udalak joan den astean. Hain justu ere, 700 ale banatu dituzte Aramaio-ko etxe eta baserrietan.

PARAJEAK, AUZOAK ETA JENDEA

Aramaio-ko Udalak antolatutako argazki lehiaketako argazkiak erabili dituzte egutegia osatzeko, "hiru irabazleen argazkiak gehi finalista geratu zirenenak sartu ditugu", argitu du Udaleko Kultura teknikari Rosa Mondragonek. Herriko auzo, paraje eta bestelakoei egindako argazkiak direla ere kontatu du: "Uribarri, Arexola... auzoak agertzen dira. Orixol ere bai. Eta pare bat argazkitan jendea ere ikus daiteke: Barajuengo jaietan, Aramaio-ko jaietan (trikitilari taldea) eta Besaide egunean".

BESTELAKO ELEMENTUAK

Argazkiez gainera, bestelako elementuak ere gehitu dizkiote egutegiari, guztiak ere, Aramaio-ko ukituarekin: "Orri bakoitzean Aramaio-ko esaera zahar bat idatzi dugu, Juan Garmendiaren liburutik ateratakoa", dio Rosa Mondragonek; "horrez gainera, tenporak markatuta daude eta egutegiaren azalean bertso eskolakoei egindako bertso bat ipini dugu. Azken orrian, berriz, herriko telefono interesgarriak gehitu ditugu. Oso polita geratu da eta orain arte entzun dudana- rengatik jendeari gustatu zaio".

ELGETA > AUTOBUS ZERBITZU BEREZIA

Aldaketak Bergara eta Elgeta arteko autobusen ordutegian

Goizeko zerbitzuaren ordutegia berbera izango da, baina ez eguerdikoa

IRATI AGIRREAZALDEGI > ELGETA

Gaurtik, urtarrilaren 8tik aurrera, Bergara eta Elgeta arteko lotura egiten duen autobus zerbitzuaren ordutegia aldatu egingo dute. Lan egunean, astelehenetik barikura, egingo dute ibilbidea autobus horiek.

Eguerdian izango dira aldatuak. Bergara-Elgeta zerbitzua 14:30ean izango da, eta ez 14:40ean orain arte bezala. Elgetatik Bergararako autobusa, 14:45ean hartu beharko da, ez 14:55ean orain arte moduan.

Goiz parteko zerbitzuan ez da aldaketarik izango. Elgetatik Bergarara jaisteko bi aukera izango dira: 7:40ean eta 11:45ean. Bergaratik Elgetara igotzeko, aldiz, 11:30ean.

Txartela 1,05 euro kostatuko da; bonoarekin, 0,95 euro. Bonoak jaso nahi izanez gero, udaletxera jo behar da.

Antzuola hizpide

Goitb
Goiena Telebista

Ikustekoa!

DEBARRI / Babeslea

GRUPO
ARABAKA 1950-2007 ARABAKA

DEBARRI

Jose Angel Zabalo Antzuolako alkatearekin berriketan
Asteazkena 10, 21:15ean
Alberto Gorritibereak aurkeztuta

Aurrez galderak egiteko: www.goiena.net webgunean
edo 943 71 23 91 telefono zenbakian.



Kirola



> **DERBIA**
Aloñak eta Mondrak 3-3 berdindu dute Agorrosinen > 18



> **ESKUBALOIA**
Senidetze entrenamenduak egin dituzte neska-mutikoez > 19



> **PILOTA**
Binakako txapelketako lehenengo jardunaldia > 20



> **JON URTZELAI**
Vecindario taldeak baja eman dio futbol jokalarari oñatiarrari > 21

IBARREKO KIROLDEGIAK > 2007KO TASAK

Txartel bateratuarekin igerilekuak bakarrik erabili ahal izango dira

URTEKO ABONUAK

Urte osorako abonua izango dira; Bergaran, ordea, hileko ordaindu beharko da

BI EREMU

Arrasaten tarifa bereziak izango dituzte eremu lehorrak eta eremu bustiak

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Urte berria modu onean hasi guran, lagun mordoak ematen du izena kiroldegietan. Batzuk Gabonetako gehiegikeriak erretzeko asmoz, eta beste batzuk urte berriko helburuak betetzeko asmoz, jendea kiroldegietara hurbilduko da datozen egunetan. Gurean, kirola egiteko aukera ona dago, herri gehienetan dago-eta kiroldegia. Hala, ibarreko kiroldegiek ematen duten eskaintzei begira jarri gara.

Urte berriarekin, tarifa berriak ipini dituzte kirol etxe guztiak. Gainera, Debagoieneko txartel bateratua ateratzeko aukera ere badago. Hala, txartel hori ateratzen duen kirolariak Debagoieneko kiroldegi guztietako igerilekuak erabiltzeko eskubidea izango du. Orain arte, igerilekua erabiltzeaz gain, beste zerbitzu batzuk erabiltzeko aukera ere bazegoen, baina aurten, akordio bat lortu arte, igerilekuak bakarrik izango dira amankomunak.

TXARTEL BATERATUA

Kiroldegi bakoitzean ordaindu behar den kuota plus bat gehitu behar zaio txartel bateratua ateratzeko. Hala, Arrasate, Aretxabaleta eta Oñatin 129,60 euro kostako da nagusien banakako urteko abonua. Aretxabaletan zertxobait merkeagoa izango da: 126 euro. Garestiena Bergarako kiroldegia izango da: Bergaran, 18 euro ordaindu beharko da hileko. Tarifa hori 18 urtetik gorakoek ordaindu beharko dute.



AGORROSIN Maiatzetik aurrera bainuetxea eta kanpoko berdegunea erabili ahal izango dira.

XABIER URTZELAI

Arrasateko kiroldegian bi eremu bereiztuko dira: lehorra eta bustia. Bi guneek tarifa berbera izango dute: 63,85 euro 20 urtetik beherakoentzako, eta 107,10 adin

horretatik gorakoentzako. Bi guneak erabili nahi dituenak gehiago ordaindu beharko du (95,60 edo 160,60). Bestalde, Arrasateko txartel familiarra 167,80 eurokoa izan-

go da eremuko. Bi eremuak erabiltzeko txartela 251,75 kostako da. Bergaran abonua ez da urtekoa izango, hilekoa baizik. 18 urtetik gorako helduek 18 euro

ordaindu beharko dute. Gainera, maiatzetik aurrera Agorrosingo bainuetxea eta kanpo berdegunea ere erabili ahal izango dira. Oñatin ere, maiatzerako, kiroldegi berria amaituta egotea espero da.

Egun bakarretarako sarrerak

Urteko abonua egin ez duenak egun bakarretarako sarrera ordaintzeko aukera du. Arrasaten 5,55 euro da sarrera, Aretxabaletan 3,80 euro, Eskoriatzan 3,85 euro, Bergaran 3,70 euro eta Oñatin 5 euro (nagusien tarifak dira).

Ikastaroak urte guztian izango dira

Hainbat ikastaro antolatu dituzte gure kiroldegietan: fit bike, pilates eta aquagym, besteak beste. Ikastaro hauetan parte hartzeko ordaindu beharreko kuota merkeagoa izango da kiroldegiko abonatuendako.

Boulderra erabiltzeko aukera

Arrasaten, Bergaran eta Oñatin boulderra erabiltzeko aukera dago abonuekin batera. Bestalde, Eskoriatzan euro baten truke alokatu ahal izango da rokodromo. Squash eta bestelakoak alokatzeko posibilitatea ere bada.

DESKONTUAK

Kiroldegi guztietan abonua murriztuak egongo dira jubilatutako langabetu eta ikasleentzat. Bergaran, gainera, familia unitatei diru sarreraren arabera tarifa sozialak aplikatuko zaizkie.

Urtea aurrera joan ahala bazkide kuota egin nahi duenak tarifaren zati bat ordaindu beharko du. Uztaila edo irailetik aurrera egingo dira murrizketak.



NAGUSIAK

Goiko ilaran, ezkerretik hasita: Maite Duque, Nagore Rico, Irati Lekue, Eli Berridi, Lide Mar. **Erdiko ilaran:** Jenny Guerrero, Olatz Undagoitia, Haizea Fernandez, Antonio Nuñez (entrenatzailea). **Behoko ilaran:** Olatz Igartua, Miriam Vidriales, Andere Etxabe, Iraia San Miguel, Zuriñe Pagaldai.

Parte 06-07 (Futbol eta Areto Futbol saila)



KADETEAK



KADETEAK, ZORTZIKO FUTBOLA



INFANTILAK A, ZORTZIKO FUTBOLA



INFANTILAK B, ZORTZIKO FUTBOLA



ARETO FUTBOLA

KADETEAK



INFANTILAK



FUTBOLA > URTE BERRIKO LEHEN DERBIA, AZKOAGAINEN

Puntu banaketa eta gol festa Oñatiko derbian

Aloñaren eta Mondraren arteko derbian sei gol ikusi ziren

Mondra hiru aldiz aurreratu zen, baina Aloña gai izan zen berdinketa lortzeko

ALOÑA MENDI

3-3

MONDRA

Aloña Mendi > Iñigo, Jokin, Xabi (Mikel, 93. min.), Arregi (Jon, 45. min.), Roberto (Aritz, 71. min.), Iñigo (Henry, 45. min.), Barrena, Aitor, Iker (Arregi, 87. min.), Astola eta Iker.

Mondra > Ander, Loiti, Illar (Gotzon, 58. min.), Amu, Laspiur, Ruben, Muxi, Keixi, Ekain, Iker (Losada, 45. min.) eta Zubikarai (Alartzia, 91. min.).

Epailea > Berasategi jauna. Ulazia eta Reguero izan zituen laguntzaileak.

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Norgehiagoka interesgarria jokatu zuten atzo Azkoagain futbol zelaietan Aloñak eta Mondrak. Gol ederrak egon ziren, joko ona ere bai, eta baita tentsioa ere, batez ere Aloña bederatziz jokalarirekin geratu zenean.

Giroa ere ez zen falta izan atzoko partiduan. Izan ere, zale asko hurbildu zen Arrasatetik Oñatira derbia ikusteko asmoz.

LEHEN ZATIAN, MONDRA NAGUSI

Norgehiagokak bi zati oso ezberdin izan zituen. Hala, lehenengo zatian Mondra izan zen partidua menderatu zuena. Zelai erdia kontrolpean izan zuen Igor Gordobil taldeak.

Horren ondorioz, gola etorri zen. Iker Lopezek lortu zuen 12. minutuan. Zelai erditik egindako jaurtiketa sareetara bidali zuen. Gol polita, Mondrako jokalariek lortu zuena. Arrasateko taldeak beste aukera garbi bat izan zuen atsedenen aurretik bigarrena egiteko, baina Ekainen errematea kanpora joan zen.

Aloñak, lehen zatian, ez zuen gol aukerarik izan.

ALOÑA, HOBETO

Bigarren zatian hasieran, aldatu egin zituzten bi taldeek. Hala, oñatiarrek, egindako aldatu egin esker, joko biziagoa egin zuten, eta baita berdinketaren gola ere. Jon Astigarragak lortu



LEHIA Aloñako Aitor eta Mondrako Muxi lehian baloia buruz menderatzeko.

JOSETXO ARANTZABAL

zuen gola falta jaurtiketa batean. 49. minutua zen. Berdinketarekin, Aitor Oruetaren taldeak era-

soan ondo jokatu zuen, baina Mondra izan zen bigarren gola egin zuena 61. minutuan. Erre-

matean Gotzonek aurea hartu zion Aloñako atezain Iñigori.

Hurrengo jokaldian, Aloñak berriro berdindu zuen norgehiagoka. Astigarragak egindako falta erdiraketa ez zuen ondo errematatu Astolak. Bada, bigarren errematean, Xabi Caminok baloia atean sartu zuen.

Berdinketarekin, etxeko taldeak izan zuen markagailuan abantaila hartzeko aukera, baina Mondrako jokalaria Zubikarai lortu zuen hirugarrena.

Amaieran lortu zuen Bazanek Aloñaren berdinketa, taldeak bi jokalarik gutxiago zituenean.

ESANAK

"Batez ere nire jokalariek bigarren zatian erakutsi duten jarrera azpimarratuko nuke"

Aitor Orueta >
Aloñako entrenatzailea

"Aipagarria da Aloña Mendik hiru golak falta erdiraketen ondorioz lortu dituela"

Igor Gordobil >
Mondrako entrenatzailea

emaitzak eta sailkapenak

PREFERENTE MAILA

Sailkapena	Puntuak	JP
1. Zarautz	35	16
2. Hernani	27	16
3. Mondra	27	16
4. Anaitasuna	26	16
5. Zestoa	26	16
6. Berio	25	16
7. Ordizia	24	16
8. UDA	23	16
9. Touring	23	16
10. Aloña Mendi	20	16
11. Pasaia	20	16
12. Trintxerpe	19	16
13. Hondarribia	17	16
14. Idiazabal	17	16
15. Aurrera	16	16
16. Mutriku	15	16
17. Urola	15	16
18. Martutene	12	16

Emaitzak	
Zarautz-Trintxerpe	1-0
Aloña Mendi-Mondra	3-3
Zestoa-Idiazabal	6-2
Aurrera-Berio	1-0
Ordizia-Anaitasuna	1-0
Hondarribia-Touring	4-0
Hernani-Mutriku	1-0
Pasaia-Urola	1-1
UDA-Martutene	3-0

Hurrengoak	
Trintxerpe-UDA	
Mondra-Zarautz	
Idiazabal-Aloña Mendi	
Berio-Zestoa	
Anaitasuna-Aurrera	
Touring-Ordizia	
Mutriku-Hondarribia	
Urola-Hernani	
Martutene-Pasaia	

BESTELAKOAK

LEHENENGO ERREGIONAL	
Allerru-Bergara	1-0

BIGARREN ERREGIONALA	
Mondra-UDA	4-2
Elgeta-BTLS	2-0
Antzuola-Gazteak	2-4

EMAKUMEZKOAK	
Mondra (Atsedena)	
Arizmendi-Aretxabaleta-Aloña	3-1

OHOREZKO GAZTE MAILA (IGOERA)	
Mondra-Vasconia	1-0
UDA-Sporting Herrera	2-0
Aloña-Kostkas	3-5

GAZTEAK IGO MAILA (IGOERA)	
Allerru-Arizmendi B Aretxaba.	0-2

OHOREZKO KADETEAK (IGOERA)	
Zarautz-UDA	1-2
Vasconia-Bergara	1-2

OHOREZKO KADETEAK (KOPA)	
Aurrera-Aloña Mendi	2-5
Sporting Herrera-Arrasate	2-0

NESKAK KADETE MAILA	
Lazkao-Aloña Mendi	2-1
Lagun Onak-Arizmendi Aretxabaleta	2-0
Arizmendi Arrasate (atsedena)	

OHOREZKO INFANTILAK (KOPA)	
Arrasate-Hernani	1-0
Aloña-Elgoibar	1-0

INFANTILAK	
Zumaia-Bergara	2-1



INFANTILAK Bergarako Labegarieta kiroldegian infantil mailako neska-mutikoak harrapatu genituen egubakoitzean.

ARANTZAZU EZKIBEL

ENTRENAMENDUAK > INFANTIL ETA KADETE MAILA

Eguaztenean eta egubakoitzean bildu ziren, Bergarako eta Arrasateko kiroldegian

Entrenamendu bateratuak egin dituzte ibarreko neska-mutikoek

Elkar ezagutzeko aukera izateaz gain, gazteek eskubaloi teknika berriak ikasi dituzte

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Anaitze entrenamenduak egin dituzte Gabonetako egun hauetan Arrasateko, Bergarako eta Oñatiko gazteek. Infantil eta kadete mailako jokalariek elkartu dira, bi egunez, Arrasateko Iturripe kiroldegian eta Bergarako Labegarietan.

JOKALARIAK ELKAR EZAGUTZEA

Entrenamendu hauen helburua eskualdeko jokalariek elkartu eta hainbat entrenamendu egitea izan da. Jokalariek elkar ezagutzeaz gain, hainbat entrenatzaile

le ezagutu eta denetarikotako entrenamendu moduak egitea ere izan dira eskubaloi arduradunen helburuak.

"Bailarako jokalariek elkar-tzea oso garrantzitsua izan da. Hala, batak bestea ezagutzuz eskubaloi jokatzeko aukera izan dute", adierazi digu entrenamendu ostean Mikel Mantxola Aloña

Mendi eskubaloi taldeko partaideak.

Hiru elkarteetako arduradunak oso gustura geratu dira entrenamenduok izan duten harrera onarekin, bai Arrasate eta bai Bergarako kiroldegietan aipatutako elkarteetan federatuta dauden neska-mutiko mordoak bildu dira-eta.

Gainera, etorkizunera begira eginiko entrenamenduak ere izan dira. Orain gertatzen den bezala, aurrerantzean ere talde batek hainbat herriko jokalariek hartu beharko ditu.

ETORKIZUNEN TALDEA

Entrenamendu hauen bidez etorkizuneari sortu daitekeen talde

bateratua osatuko duten jokalariek elkar ezagutu dute. Izan ere, eskubaloiaren etorkizuna hori da: "Duda gabe, etorkizuneari hori izango da irtenbidea. Hainbat herriko jokalariek osatutako taldeak izango ditugu ibarrean", gaineratu digu Mantxolak.

Orain ere, Aloña Mendiko nagusien mailako neska taldean Bergarako hainbat jokalariek daude. Era berean, Bergarako aurtengo ez du gazte mailako mutil talderik, eta horregatik, Bergarako gazteek Oñatin jokatzeko aukera izan dute.

Bestalde, aurtengo denboraldian Aloña Mendiko nagusi mailako mutilak ez dute talderik atara; hori dela-eta, jokalariek batzuk Arrasateko Ford Mugarrin ari dira, eta beste batzuk, Bergaran. Beraz, egunotan egindako entrenamenduak oso positiboak izango dira etorkizunerako.

Hiru elkarteetako 100 lagun inguru elkartu ziren

Ibarrean hiru elkarteak egiten dute eskubaloi: Arrasate, Bergarako eta Oñatiko Aloña Mendik. Eskubaloiak ez du beste kirolek beste lagun mugitzen, ez baita besteak bezain kirol ezaguna. Hala ere, gure ibarrean, eskubaloi jokatzeko duen gazte mordo dago. Horren adibidea egunotan izandako entrenamenduen arrakasta izan da. Kadete mailako neska-mutirik Arrasateko Iturripe kiroldegian bildu ziren, guztira 50 gazte inguru.

Lehenengo, neskek entrenatu zuten eta, haien ondoren, mutilen txanda heldu zen. Bergaran ere gauza bera egin zuten, baina kasu honetan infantil mailakoekin. Labegarietako kiroldegian ere 50 gaztetxo hartu zituen. "Giro oso polita sortu da neska-mutilen artean. Oso gustura aritu dira, eta gu ere, arduradun bezala, gustura geratu gara entrenamenduok izan duten erantzunarekin", aipatu zigun Mikel Mantxolak.

ESKUBALOIA > ASTE BUKAERAKO PARTIDUAK

Oporren ondoren, eskubaloi taldeak berriro lehiara

Aste bukaeran hasiko dira berriro ere Gipuzkoa eta Euskadi mailako txapelketak

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

Gabonetako oporrak amaituta, eskubaloi txapelketak martxan jarriko dira aste bukaeran. Hala, Gipuzkoa eta Euskadiko txapelketetan jokatzeko duen eskualdeko talde nagusiak ere aste bukaeran lehiatuko dira.

FORD MUGARRI

Arrasateko eskubaloi talde nagusiak Egiaren aurka jokatu du oporren ondorengo lehen partidua. Beñardo Balerdiren taldeak iazko azken porrota ahaztu nahi du, Ford Mugarririk Portugaletaren aurka galdu zuen-eta.

Edozelan ere, lan bikaina egin du orain arte Arrasateko taldeak Euskadiko txapelketan. Hala, lehenengo itzulian, hamasei puntu lortu ditu Ford Mugarririk. Bigarren itzulirako helburua, orain, sailkapenean ahalik eta goren geratzea da.

NESKAK ETA TERRITORIALA

Lehenengo territorialeko eskualdeko bi taldeek, Bergarako eta Arrasateko, ibilbide ezberdina jarraitu dute orain arte. Bergarako taldeak jokatu du lehia guztiak irabazi ditu, eta bide beretik jarraitu nahi dute. Arrasateko taldeak, aldiz, zailtasun gehiago izan ditu garaipenak lortzeko. Aste bukaeran, Urnietan eta Tolosan jokatu dute, hurrenez hurren. Azkenik, Aloñako senior mailako taldeak Elorrion jokatu du aste bukaeran.



GARAIPENAK Orain arteko partidu guztiak irabazi ditu Bergarako.

ARTXIBOA



TALDEAK Aretxabaleta eta Arrasateko taldeak lehiatu dira. JOSETXO ARANTZABAL

FUTBOLA > FINALAK, IBARRA FUTBOL ZELAIAN

Peña Zubiko finalean, sariak denondako

1996 eta 1997 urtetan jaiotako 110 mutikok parte hartu dute abenduaren 26an martxan jarri zen Peña Zubi futbol txapelketan

MIREIA BIKUÑA > ARETXABALETA
Aste bukaeran jokatu ziren Aretxabaletako Ibarra futbol zelaian Peña Zubi txapelketa-finalak. Arrasate eta Aretxabaletako hamaika taldek hartu dute parte txapelketan; guztira, 110 mutiko.

FINALAK
1996an jaiotako artean, Solano B taldea izan zen txapeliduna. Finalean, Joma taldeari 3-2 irabazi zion. Kontsolazio finalean, Argi Ibili taledak eskuratu zuen txapelketako hirugarren postua. 3-0 nagusitu zen Sola-

no A taldearen aurka. Azkenik, Esko Esport taldeak eskuratu zuen bosgarren postua, Leiza Txiki taldeari irabazita.

1997an jaiotako artean, talderik onena Joma A taldea izan zen. Finalean Joma B taldea menderatu zuen (2-0). Solano B taldea, Solano A taldea eta UDAPol sailkatu ziren hirugarren, laugarren eta bosgarren tokietan, hurrenez hurren.

Finalak jokatu ondoren, sari banaketa ekitaldia egin zen Ibarra futbol zelaian bertan. Parte-hartzaile guztiek sariak jaso zituzten.

PILOTA > BINAKAKO TXAPELKETAKO LEHENENGO JARDUNALDIA


Pilotari bizkaitarrek garaipen erosoan lortu zuten bikote nafarraren aurrean

Binakako txapelketako estreinako jardunaldia jokatu zuten Errege egunean Bergarako pilotalekuan; ikusle gutxi hurbildu zen, 200 lagun inguru

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA
Leiza eta Zearra 9-22 nagusitu zitzaizkion Chafee eta Eulate bikote nafarrari. Garaipen erosoan izan zen bikote urdinak lortutakoa; arazo gabe lortu zuten markagailuan aurre hartu eta errentari eustea.

IAZKO TXAPELDUNA
Eulateren jokoa ikusteko ikusmina piztu zen; izan ere, iaz, Irujorekin batera, binakako txapela lortu zuen Lizarrako pilotariak. Bergaran, baina, ez zuen uste bezalako maila eman zapatuan Eulatek. Bikote gorriaren lehenengo hiru tantoak berak egin zituen, baina ordurako 3-13 aurretik ziren markagailuan bizkaitarrak. Gero, sei tanto jarraian huts egin zituen Eulatek. Bestalde, Leiza eta Zearra ondo aritu ziren; serio jokatu zuten eta ez zuten tantorik oparitu.

Lehenengo partidurako, aldaketa txiki bat izan du txapelketak. Xala izango da Eulateren bikotekide aurtengo binakakokan, baina iparraldeko pilotaria min hartuta dagoenez, Chafee arituko da Eulateren aurrelari lanetan hasierako partiduetan.



ESKAS Uste baino okerrago aritu zen Eulate zapatuan.

JOSETXO ARANTZABAL

JARLEKUAK KENDU DITUZTE
Gabonetako txapelketako finalean Titin III.ak min hartu eta gero, Bergarako Udalak pilotalekuko lehenengo ilarako jarlekuak kentzea erabaki du. Modu honetan, metro bat gehiago irabazi du

zabaleran pilotalekuak. Hala ere, neurria ez da behin betikoa izango. Udaletxea neurri seguruagoren bat jartzekotan dabil, baina, beste erabakiren bat hartu bitartean, dagoenetan utziko dituzte jarlekuak.

Gorka Zurututza > Mugarri Alkesa taldeko entrenatzailea

"Bigarren fasean jokatuko ditugun partidu guztiak finalak izango dira guretako"

MIREIA BIKUÑA > ARRASATE
Lehenengo fasea bukatuta, denboraldiko tarterik erabakigarriena jokatu du Mugarri Alkesa taldeak. Bigarren fasea urtarrilaren 20an hasiko dute Gorka Zurututzaren mutilek. Lehenengo lehia Arrasaten jokatu du Durangoko Tabirako taldearen aurka.

Egun batzuk barru hasiko da denboraldiko tarterik erabakigarriena. Lehen fasean lana ondo egin zenuten seinale da hori, ezta?

Lehen fase nahiko ona egin dugu, bai. Hasierako hilabetean hiru partidu galdu genituen, baina taldeak jarrera ona erakutsi

zuen, eta, lehen fasean, ez dugu partidurik galdu Arrasaten.

Bigarren fasean, hamabi talde lehiatuko zarete. Zein da zuen helburua?

Helburu nagusia igoera jokatze eskubidea ematen duten lehenengo bi postuetan amaitzea da. Bada, ez da samurra izango, bigarren faserako talderik indartsuenak sailkatu dira-eta. Fase honetako partidu guztiak finalak izango dira guretako.

Hamabi talde, eta igoera jokatze bi postu besterik ez. Zeintzuk dira kontuan hartu beharreko taldeak?


Duda barik, talde sendoena Consmetal taldea da. Ezustekorik ez bada, bera izango da igoera jokatze eskubidea ematen duten bi postuetako bat eskuratu duena. Hala, beste bost talde egongo gara bigarren postuaren atzetik.

Igoera jokatze txartela eskuratzeko giltza non dago?

Etxeko partiduetan, izan ere, Iturripeko norgehiagokak irabazita, lasaiago jokatzen da beti etxetik kanpo. Garrantzitsua da ere bigarren fasean irabazten hastea.

Fase erabakigarri honetan, zaleek ere ez dute hutsik egingo.

Gu oso pozik gaude zaleek eman duten erantzunarekin. Askoz gusturago jokatzen da harmailak beteta daudela ikustean. Beraz, mila esker guztioi.



Gorka Zurututza, Mugarri Alkesako entrenatzailea.

ARTXIBOA

Jon Urtzelai jokalaria oñatiarrentzat gaizki hasi da urtea: UD Vecindario talde kanariarrak baja emango dio fitxaketa berriak egin ahal izateko. Hori dela eta, 29 urteko oñatiarrak bigarren B mailan aurkitu behar du taldea aurtengo denboraldian. Realeko harrobitik aterako jokalaria da Urtzelai. Gerora, Novelda, Barakaldo, Eibar eta Murtzian jokatu du.

Jon Urtzelai > Futbol jolalaria

"Titular bezala aritu arren, ez da ezustea izan baja ematea"

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Egubakoitzean izan ginen Jon Urtzelarekin. Oraindik Vecindario taldeko zuzendaritzarekin ezer adostu barik zegoen oñatiarra. Hori dela eta, ez du beste taldeekin hitz egiteko aukerarik izan; hala ere, Eibar aukera bat izan daitekeela esan digu Urtzelaik.

Ezustekoa izan da Vecindario taldean baja eman izana?

Ez, niretako ez. Aurretik zerbait arraroa igarri nuen, batez ere entrenatzailearen eta idazkari teknikoaren aldetik. Idazkari teknikoa taldera iritsi zenetik ez dut oso harreman ona izan berarekin. Hori dela eta, niretako ez da ezustekoa izan; bai, ordea inguruko jendearendako. Izan ere, orain arte jokatu diren ia partidu guztiak jokatu ditut, gehienak titular bezala. Baina, esan bezala, niretako ez da ezustekoa izan; etxean ere komentatu nuen hau gerta zitekeela.

Orain arte titular bezala jokatzen aritu zara. Zerk eragin du aldaketa hau?

Ez dakit. Entrenadore aldaketa ere izan dugu aurtengo denboraldian, baina gauza da entrenatzaile berriarekin ere jokatzen ari nintzela. Beraz, ez dakit. Vecindariora Murtzia taldetik etorri nintzen, teorikoki beste guztiak baino esperientzia handiagoko jokalaria nintzen eta, dirudieenez, ez dira guztiz gustura geratu nire lanarekin, eta baja ematea pentsatu dute.

Jarri zara harremanetan beste talderen batekin?

Izan ditut harremanak beste talde batzuekin, baina hemengo egoera argitu arte ezin da ezer erabaki. Beste taldeak ere ez dira eskaintzak egitera ausartzen. Orain derrigorrez bigarren B mailara jaitsi behar naiz, eta ikusiko dugu zer gertatzen den. Lehenengo, hemengoa konpondu behar dugu, eta gero ikusiko dugu zer egiten dudana.

Aurrera begira, nola ikusten duzu zure futbol ibilbidea?

Ez dakit, futbol mundua oso ezegonkorra da-eta. Sei hilabetean Murtzia bezalako talde baten egotetik bigarren B mailan egon behar izatera pasa naiz. Honek oraindik buelta asko eman dezake; hala ere, nik beste bost urtean futboleko jokatzen jarraitzeko esperantza daukat. Baina momentu honetan ez dakit, pix-



Murtzia taldearekin aritu zen Jon Urtzelai iazko denboraldian.

GOIENKARIA

ka bat lekuz kanpo nago; ez dakit hemendik noiz aterako naizen eta nora joango naizen.

Aurretik ere bigarren mailan jokatu duzu, lehenengo Eibarraren eta gero Murtzian. Desberdintasun handia igarri duzu talde hauen artean?

Desberdintasuna taldearen arabera dago. Eibar eta Vecindario antzerako taldeak dira, mailari eustea dute helburu. Murtzia, ordea, talde handiagoa da, eta lehenengo mailara igotzeko helburua du.

Bestalde, bigarren A maila oso gogorra da; gogorrenetako dela esango nuke. Nahiz eta taldeak aurrekontu handia eduki, zelaian zail egiten da denboraldi hasieran jarritako helburuak lortzea. Nire ustez, bai lehenengo mailara igo nahi duen taldearendako, eta bai jaitsi nahi ez duen taldearendako, zaila da hasierako nahiei eustea.

Zergatik esaten duzu bigarren maila gogorrenetarikoa dela?

Futbol kontzeptua ezberdina da, joko gogorragoa da, joko fisikoa da. Bestalde, lehenengo mailatik jaitsitako taldeak daude, eta baita gora igotzeko gogoz dagoen jende gazte asko. Nahasketa handia dago, eta egoera horrek taldeak euren artean parekatuak izatea eragiten du.

Adibidez, Eibar bezalako talde batek bigarren A mailan 17 urte iraun du defentsa gogorra egin duelako eta jende gaztea eta ilusioz betea izan duelako.

Eta nola ikusten duzu euskal taldeen egoera?

Nahiko larria dela esango nuke. Argi dago, azkenaldian, bai lehenengo mailan eta bai bigarren mailan dauden euskal taldeak gaizki ari direla. Iaz Eibarrak maila galdu zuen eta bigarren B mailatik jaitsi ziren guztiak ere euskal taldeak izan ziren.

Uste duzu jende gaztearekin ondo egiten dela lana?

Bai, lana egiten da. Gertatzen dena da gero, aukerak ematera ko orduan, ez direla ematen. Azkenaldian Realean egon diren entrenatzaileak, Amorrortu bezala, harrobia landu nahi izan dutenak izan dira, eta kasu horietan ikusi da etxeko jokalaria gazteek aukerak izan dituztela. Baina oraingo egoeran, taldea gaizki dagoenean, oso zaila da jende gazteari aukerak ematea.

ESPERIENTZIA HANDIAGOA

"Murtzia taldetik etorritako jokalaria nintzenez, gehiago espero zuten nitaz"

EZEGONKORRA

"Murtzian egotetik bigarren B mailan jokatu behar izatera pasa naiz denbora gutxian"

EUSKAL TALDEAK

"Argi dago azkenaldian lehenengo eta bigarren mailako euskal taldeak gaizki ari direla"

DANBAKA))))))

DEBAGOIENENKO II. MUSIKA LEHIAKETA

FINALA!

URTARRILAK 12

Egubakoitza | 22:30
Elgetako Kafe Antzokia

ABY-KEM

BERGARA

BELCEBLUES

BERGARA

MALENKONIA

OÑATI

TALDE GONBIDATUA

KEROBIA

LEHIAKETATIK KANPO

Prezioa: 4 euro / Gazte kutxa: 2 euro

Emanaldiaren amaieran emango dira ezagutzera
**Danbaka lehiaketako irabazlea, bakarleri onena
eta publikoak aukeratutako talde irabazlea.**

INFORMAZIO +
www.danbaka.com


**KAMISETAK
SALGAI!**



> **DANBAKA**
Hiru talde finalistek zelan gertatzen ari diren kontatu digute > 24



> **ANTZERKIA**
'Splash' lana antzeztu zuen Yllana taldeak Espaloian > 26



> **LEHIAKETAK**
Aratusteetako kartelen sariketa bana Arrasaten eta Bergaran > 27



> **ELKARRIZKETA**
GOITBko aurkezle Larritz Zeberioiok aisialdiaz berba egin digu > 29

Erdi Aroko kanpai-tailerra aurkitu dute Eskoriatzan

Santa Marina auzoko urbanizazio lanek herriko gune fundazionala erakutsi eta kanpaigintza tailer bitxia azaleratu dute

Kanpai-moldeen aurkikuntza berezia da kopuruarengatik eta haien neurriarengatik

Martitzenean estali eta babestu zituzten arrastoak Aranzadikoek oihal berezi batekin

JON BEREZIBAR > ESKORIATZA

Santa Marina auzoko urbanizazio lanek lurpean gordetako hainbat ezusteko agertu dituzte abendu amaieran. Jakina zen inguru hura interes historikoko gunea zela, Santa Marina izan zen-eta Eskoriatzako erdigunea Erdi Aroan, "gune fundazionala", hain zuzen ere, Saioa Alzua Ibarraundi museoko langileak esan bezala. San Pedro parrokian hasi eta Deba eta Bolibar ibaien elkarguneraino, bizitza publiko eta ekonomikorako ezinbestekoak ziren eraikinak biltzen ziren bertan: eliza, lurperatze eremua, ospitalea, udaletxea, harategia eta baita eskola ere. Horregatik, gunea berrurbanizatu baino lehen, Aranzadiko arkeologoak izan ziren bertan ingurua miatzen. Hala, abendu amaieran, kanpaiak egiteko molde, labe eta lurperatze batekin egin zuten topo ikerlariek. Aurkintzaren berri eman eta urte amaieran eta joandako astearen hasieran bisita gidatuak antolatatu dituzte. Eranztuna "paregabea" izan dela dio Alzuak; 200 bat lagunek, gutxi gorabehera, ikusi ahal izan dituzte aztarnak.

ERDIGUNE HISTORIKOA

XVIII. mendetik Santa Marinaran zegoen baserri eta hilerriaren aztarnetan egin ditu laginak Aranzadi Elkarteak, eta hainbat mende zaharragoak diren arrastoak aurkitu dituzte: kanpaigintza tailerra eta lurperatze bat. Haur baten hezurdura aurkitzea ez da ezustekoa izan, XVI. mendetik eliza, gero ermita izendatutakoa, eta ospitalea egon zelako Santa Marinaran eta ikerlariek

bazekitelako 1599ko izurritean pertsona ugari ehortzi zituztela inguru hartan. Antza, eliza hura izan zen Eskoriatzako lehenengo parrokia. Ermita izendatu eta gero, XVIII. mendean, partikular bati alokatu zion eraikina Gotzaindegiak baserri gisara. Ospitaleari lehenengo erreferentziak ere XVI. mendekoak dira, eta mende bat geroago, eraikina udaletxe moduan erabiltzen hasi ziren, hura zen-eta herriko erdigunea, nahiz eta ordurako parrokia San Pedrokoa izan. Harategia, alondegia eta eskola publikoa ere egon dira Santa Marinaran.

KANPAIGINTZA TAILERRA

Aurkikuntzarik bitxienean, baina, kanpaiak egiteko lau moldeak eta labeak izan dira. Bitxia da, hain kanpai handiak behar zituen elizaren erreferentziarik ez dago-eta, eta ez da oso ohikoa izaten molde bat baino gehiago aurkitzea. Izan ere, maisu-kanpaigileak lana lekuan bertan egiten zuten eta, ostean, tailerra lurperatu egiten zuten.

Arrastoak orain babestuta daude, joan den asteke euriek kalte egin diete eta. Oihal berezi batekin eta lurrarekin estali dituzte Aranzadikoek, eta aurki jarraituko dute urbanizazio lanekin. Plazatxo bat egingo dute gainean, baina, aurkikuntzaren berri emateko, zorian koloreekin seinaleztatuko dute aurkikuntzaren lekua, eta informazio-panelak ipiniko dituzte. Datuak jasota eta aurkikuntza ikusita, artxibategi historikoetan zantzu gehiagoren bila jarraituko dute Aranzadiko ikerlariek, sortutako zalantzak argitzen saiatzeko.



LURPERATZEA

Eliza eta ospitalea zeuden

Santa Marinarako gune arkeologikoan aurkituriko aztarnen artean haur batena izan daitekeen hezurdura dago. Agiri historikoez diote inguru hartan Santa Marina eliza eta ospitalea egon zirela Erdi Aroan. Jakinaenez, XVI. mendean izurriteak hildako pertsona ugari ehortzi zituzten han. eta aurkitutako hezurak garai hartakoak izan daitezkeela diote, oraindik frogarik ez badago ere.

KANPAIGINTZA

Lau molde aurkitu dira

Kanpaiak egiteko hiru molde handi eta txiki bat izan dira aurkitutakoak. Bitxia da hainbeste molde eta hain handiak izatea, ez baitago bertan eliza handirik egon zeneko agiririk. Santa Marinarako eliza, gerora ermita izendatua, XVIII. mendera arte egon zen han, eta baliteke XV. eta XVII. mendeen bitartean erabili izatea molde eta labeak. Agirietan bila dabilta arkeologoak.



LABEAK

Brontzea egiteko

Kobrea eta eztainua urtzen zituzten labeetan. Maisu-kanpaigileek lekuan bertan egin ohi zituzten kanpaiak, eta bertara Kantabriako eskulangileak etortzen ziren. Langintzaren sekretuak gorde eta kopiak saihesteko, behin lanak amaituta, molde eta labeak desegin eta tailerrak lurperatu egiten zituzten. Eskoriatzan labe bi agertu dira: biribil formako bat eta karratu itxurako berriago bat.

MUSIKA > DEBAGOIENENKO II. DANBAKA MUSIKA LEHIAKETA

Entsegutan buru belarri ari dira egunotan talde finalistak

Egubakoitz honetan izango da finala Elgetako Espaloia Kafe Antzokian gaueko 22:30an

Bakarlari onenari eta ikusleek aukeratutakoari ere emango dizkiete sariak

JON BEREZIBAR > BERGARA

Aby-Kem, Belceblues eta Malenkonia taldeen artean dago Danbaka musika lehiaketako bigarren edizioko irabazlea. Egubakoitzean izango da finala. Horretarako hiru taldeak entsegutan fin ibili dira eta kontzertu erabakigarriaren aurretik taldeetako kide banarekin egoteko aukera izan dugu aurretik animuak zelan dauden ikusteko. Galdu edo irabazi, disfrutatzeko helburu argiarekin aterako direla diote hirurek. Talde irabazleak diskoa grabatu eta Gaztelupeko Hotsak diskoetxearekin kaleratuko du, hain zuzen ere. Ordu erdiko kon-

tzertu bana egin beharko dute finalistek. Horretaz gain, bakarlari onenaren saria eta ikusleena ere jakinaraziko dituzte egubakoitzean bertan. Bakarlariak Azkena Rockerako bi abonu, hotelean gauak eta kontzertuak emateko aukerak izango ditu eta ikusleek aukeratutako taldeak Carrion dendan gastatzeko 1.200 euro jasoko ditu.

KEROBIA TALDE GONBIDATUA

Finaleko jaialdia borobiltzeko Kerobia pop-rock talde nafarrak kontzertu egingo du lehiaketa eta gero. Iruindarrek disko berria aurkeztuko dute ibarrean egubakoitzean.



ABY-KEM > BERGARA > Metala

"Egunero entseatzan dugu eta finalekoa saio berezia izango da; guztia emateko prest gaude egubakoitzean"

Egunero dabiltzala entseatzan dio taldeko Mikelek, eta finaleko egunera arte ere saioekin jo eta su ibiliko direla gaineratzen du. "Gabonetan ez gara geratu ere egin, eta kanpoan ere izan gara jotzen urte amaieran Zaragozako jaialdi baten". Hala, ondo berotuta joango dira Aby-Kemekoak egubakoitzeko finalera. "Abesti berriak dauzkagu eta berezia izango da emanaldia; oso ondo prestatuta joango gara finalera", dio gitarra joleak.



MALENKONIA > OÑATI > Pop-rocka

"Eszenatokian egoten dakigula eta egiteko gai garena erakutsiko dugu. Garrantzitsuena jendeari gustatzea da" "Oso pozik eta ilusio handiarekin" daudela dio Iñaki taldekideak. "Finalean eszenatokian egoten dakigula eta zer egiteko gai garen erakutsiko dugu", agertzen du Iñakik, "finalera iristearekin bakarrik ere gustura gaude baina guztia eman behar da orain, iritsi garen lekura iritsita". Irabazle ateratzeari dagokionez, zera dio hark: "Epaimahairen irizpideak zeintzuk diren ez dakigu, baina, azkenean, jendeari gustatuz gero, gu pozik; beste guztia ez dago gure esku".



BELCEBLUES > BERGARA > Bluesa

"Aurrekoan bezala, kontzertu ona egin eta egindakoarekin pozik irtetea, horixe da gure helburua"

"Aurreko kontzertuko ideia bera daukagu guk: kontzertu ona egin eta gustura irten egindakoarekin" dio Oihan Vega taldekideak. Argi dauka taldeko bateria joleak, izan ere, "hau ez da kirola eta ez goaz irabaztera, disfrutatzeraz baizik". Entseguei dagokionez, normalean baino gehiago dabil batzen egunotan hirukotea, eta badabilta prestatzen egubakoitzeko hitzordua. Aurreko emanaldiaren mailari eutsi eta berrikuntzaren bat edo beste eramango dutela dio Oihanek.

Publikoaren Saria

Hemen, orain arteko sailkapena. Bozkatzeko hiru aukera daude: *danbaka.com* webgunean; SMS bidez: danbaka [utzi tartea] taldearen izena eta bidali 5767 zenbakira. (SMSaren kostua: 1,20 euro+BEZ). Eta Espaloian jarritako kutxetan ere bozka daiteke.

- 1 **ANAL BAG**
ARRASATE
Botoen %9,3
- 2 **YOTOX**
BERGARA
Botoen %9
- 3 **ABY KEM**
BERGARA
Botoen %8,9
- 4 **DRAKES**
OÑATI
Botoen %8,31
- 5 **RAUL LASA**
ARRASATE
Botoen %8,30
- 6 **INALECTRIK**
ARETXABALETA
Botoen %8,1
- 7 **LITTLE LITTLE MUCH**
ARRASATE
Botoen %7,8
- 8 **MAHASTER RIVER**
BERGARA
Botoen %7,6
- 9 **KLAKSON**
ANTZUOLA-ZUMARRAGA
Botoen %7,4
- 10 **LOS CRETINOS**
ARRASATE
Botoen %6,8
- 11 **JIM TNT ETA AMAIA**
ARRASATE
Botoen %5,7
- 12 **THE 5 TWISTERS**
ARRASATE
Botoen %2,2
- 13 **SCAM**
BERGARA
Botoen %2,1
- 14 **UNNĒA**
OÑATI
Botoen %2
- 15 **AZKAITER PELOX**
BERGARA
Botoen %1,38
- 16 **MATX**
ELGETA
Botoen %1,36
- 17 **IGOR**
ARETXABALETA
Botoen %0,9
- 18 **OZEN**
ARRASATE
Botoen %0,8
- 19 **BELCEBLUES**
BERGARA
Botoen %0,7
- 20 **MALENKONIA**
OÑATI
Botoen %0,59

Finalak

URTARRILA 12

Espaloia I 22:30

> Aby-Kem

> Malenkonia

> Belceblues



Aukeratu zure talderik gustukoena SMS* bidez

danbaka [laga tartea] taldearen izena eta bidali 5767 zenbakira.

INFORMAZIO + www.danbaka.com

* SMSaren kostua 1,20 euro+BEZ.














Nolako gidaria, halako emaitza.

Gehien komeni zaizun inbertsioa aukeratzeko, gidari ona behar duzu. Ezagutzen zaituen eta zure premiak zeintzuk diren badakien norbaiten laguntza behar duzu. **kutxa**n, zure neurri-neurrirako irtenbidea aurkitzen lagunduko dizuten analistak eta aholkulariak ditugu. Zuretzako inbertsiorik aproposena aurkitzen lagunduko dizugu. Zatoz, eta elkarrekin egingo dugu bidea.

KUTXA INBERTSIO-IRTENBIDEAK. Erraza duzu asmatzen.

ANTZERKIA > YLLANA TALDEA ELGETAN

'Splash', urtea barrezka hasteko modu polita

Espaloia antzokia bete egin zen zapatu gauean Yllanaren 'Splash' antzezlanaren ikusteko

Ekintza, musika eta efektuak erabilia, barreak eta txaloak piztu zituzten ikusleengan

AINARA LARRAÑAGA > ELGETA

Egia esan, urte akabera eta hasiera honek eman dizkigu barre gutxi egiteko aukerak ere. Hain zeharrez esnatzea ere tokatu zaigu, baina bizitzak aurrera jarraitzen du eta barrea ezinbestekoa da gure existentzian.

Hori badakite Yllana antzerki taldekoek, eta hitza hain garrantzitsua den egun hauetan ekintzari lotu zaizkie hiru aktoreak. Zapatuan egindakoa txalotua izan da, ekintza txalotua areto bete jendek. Singapur, Portugal, Kolonia, Guatemala, Maroko, Istanbul, Alemania, Txina... Itsasoa den lekuetan eta itsasorik gabeko portuan ere geratu dute itsasontzia. Milioi bat lagunetik gora izan dira egindako hamaika funtzioetan eta horren babesaz etorri ziren Espaloia Kafe Antzokira, gogoz.

GORPUTZA, LANEKO TRESNA

Berba egin barik lotzen dituzte itsasoarekin zerikusia duten

sketch-ak. Beraien gorputza da duten arma, eta keinuekin osatzen dute ordu bete luzeko lana.

Energia handiarekin erakutsi ziguten nola sinistarazi daitekeen marrazo baten gainean ibiltzea, edozein arrantzalek miretsiko lukeen arrantza modua, bi txoritxoren arteko maite-aferra ezin adierazgarriagoa, ate batek eman lezakeen jokoa... Eta horretarako salto egiten dute, antxixika, zarata, onomatopeia, mimo... Musikarekin eta efektu batzuekin laguntzen dute lana, eta emaitza hain da erakargarria...

BIRA AMAIERA DISTIRATSUA

Umeendako antzerkia omen. Batzuetan umeendako eman dute hainbat herritan, baina Elgetan egindakoak bazuen bi erronboren azpian kokatzeko sketch-ik ere. Gustuko dute helduendako lan egitea, eta atzo beraien bira amaierari energia guztia gehitu zioten. Zarata egiteko isiltasuna



MIMOA Keinuekin, ordubete luzeko antzezlanaren zuten Yllanakoek.

JOSETXO ARANTZABAL

erabiltzen badakite, eta kapazak dira beraien mundura ikusleak sartzeko.

Denbora laburrean bada ere, antzokian zeudenek atzean utzi zituzten bizitza errealeko

arazoak. Hori bai, mundu birtual eder baten truke. Pena hain motza izatea. Eskerrik asko, Yllana!

el Boulevard
de Vitoria-Gasteiz

harrapa ezazu!

MERKEALDIA

EKITALDIAK > URTARRILEKO KULTURA GIDA KALERATU DUTE KULTURA SAILEK

Ikus-entzunezkoak eta musika saioak dira urtarrilerako eskaintza nagusia

Ruper Ordorikak hilaren 27an emango duen kontzertua da izarra Arrasaten

Hilaren 19an hasiko dira ospatzen Bergaran musika bandaren urtemuga

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Urtarrila horren maldatsu gerta ez dadin askotariko kultura ekitaldiak antolatuta dituzte gureko Udaletako Kultura Sailek.

Arrasateri dagokionez, bi antzezlan ikusteko aukera egongo da. Hilaren 21ean Ron Lalá taldearen *Mi Ministerio del Interior* antzezlan ikusteko aukera egongo da Amaia antzokian, 19:30ean. Hilaren 13an, berriz, umeendako *Robin eta Hood* lana egingo dute Gorakada taldekoek, 17:00etan.

Horrekin batera hilabete guztian barrena ume zein nagusien dako filmak egongo dira aste bukaeretan eta baita egueneetan zine kluba ere.

Musikari dagokionez, Ruper Ordorikak emanaldia egingo du hilaren 27an, 20:00etan, Amaia antzokian. Musikari oñatiarrak *Memoriaren mapan* lan berria aurkeztuko du.



RUPER ORDORIKA Hilaren 27an egingo du emanaldia eta haren azkeneko lana, *Memoriaren mapan* aurkeztuko du.

ARTXIBOA

BERGARAN ETA ESKORIATZAN ERE HAINBAT EKITALDI

Eskoriatzari dagokionez, *Atenco*, Mexikoko herri zapalduen gaineko ikus-entzunezkoarekin zabal-

duko dute urtarrileko kultura egitaraua hilaren 10ean. Horren ondoren, hainbat ikus-entzunezko, film, hitzaldi eta kontzertu etorriko dira. Besteak beste, Kemen

Lertxundik *Atzoko Gabaz* diskoa aurkeztuko du hilaren 19an, Inkernu tabernan.

Bergararen kasuan aipatzekoa da Udal Musika Banda sor-

tu zeneko 175. urtemuga ospatzeko ekitaldiak hileon hasiko dira. Hala, Bilboko Udal Musika Bandak emanaldia egingo du hilaren 19an, Udal pilotalekuan.

LEHIAKETAK > BERGARAN ETA ARRASATEN

Aratusteetako kartel lehiaketak deitu dituzte

Bergarakoa aurkezteko epea urtarrilaren 29an bukatuko da; Arrasatekoa, berriz, hilaren 24an

Arrasateko Udaleko Emakume sailak Martxoaren 8a iragartzeko kartel lehiaketa ere deitu du

M.B. > BERGARA

Bergarako eta Arrasateko Udalek Inauteriak iragartzeko kartel lehiaketa deitu dute.

Bergarari dagokionez, herrian bizi edo erroldatutako edonork parte hartu ahal izango du. Diseinuen kartelak 40x60 cm-ko kartoizko oinarri bertikal baten gainean aurkeztu beharko dira eta koloreak eta teknika libreak izango dira. Bada, derri- gorrezko honako testua eroan

beharko dute: *Aratusteak 2007, Bergara*. Lanok atzeko aldean leloa dutela aurkeztu beharko dira eta egilearen datuak, berriz, gutunazal itxi baten eron beharko dira. Sariari dagokionez, 300 euro irabaziko ditu sarituak. Lanak aurkezteko azken eguna urtarrilaren 29a da eta kultura etxera eraman beharko dira.

Arrasateko Udalak ere aratusteetako kartel lehiaketa deitu du eta, han, edonork har dezake par-

te. Kartelak 50x70 cm-ko neurria izango du eta formatu bertikala. Teknika librea izango da baina honako derrigorrezko testua eron beharko du: *2007 Inauteriak Arrasate*. Lanok aurkezteko azken eguna urtarrilaren 24 da eta Biztanleen Arreta Zerbitzura eraman beharko dira.

MARTXOAREN 8A IRAGARTZEKO KARTEL LEHIAKETA

Arrasateko Udaleko Emakume sailak deitu du eta edonork har dezake parte. Aurtengo leloa *Zu ere beharrezkoa zara* da eta lelo horrekin emakumeen parte-hartze sozio-politikoaren garrantzia azpimarratu nahi dute. Saria 900 eurokoa da eta lanak aurkezteko epea otsailaren 16an bukatuko da.



ARATUSTEAK Otsailaren 17an ospatuko dugu aurten Aratuste-zapatua.

ARTXIBOA

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Antzuola. Antigua auzoa. 72 metro koadro. Berritua. Hiru logela, berogailua. Jantzia. Eguzkitsua. 685 70 41 10.

Antzuola. Duplex berria. Bi autorentzako garajearekin. Bi komun, hiruro logela, egongela eta bi balkoi. Berehalaz bizitzera joateko gertu. 653 71 54 16.

Aretxabaleta. Loramendi kalean. 77 metro koadro. Hiru logela, bi bainugela, sukaldea, egongela, bi balkoi eta ganbara. Berogailua eta igogailua. 653 47 50 62.

Arrasate. Etxebizitza salgai. Otalora 2. azken solairua, ikuspegi zoragarria, 3 logela, 2 komun, bizitzera sartzeko moduan. 675 71 37 27.

Arrasate. Berria salgai herri erdi-erdian. Egongela, sukaldea, logela bat, bainua, trastelekua, igogailua, berogailua. Oso polita. Deitu 16:00etatik aurrera. 670 55 87 41.

Arrasate. Erdigunean etxebizitza salgai. Jantzia. Igogailuarekin. Hiru logela. 605 76 36 24.

Arrasate. Etxea salgai Munar auzoan. 665 70 69 25.

Arrasate. Zigarrolan etxebizitza salgai. Hiru logela, egongela, bainugela eta sukaldea. Dena kanpoaldera, ikuspegi onekin. Jantzia. 619 45 42 87.

Bergara. Etxebizitza salgai erdialdean. Hiru logela, egongela, bainugela eta sukaldea.

Dena kanpoaldera, bista onekin. Pisu altua, igogailuarekin. 620 18 59 06.

Bergara. Zubiaurre kalean. Guztiz berritua. Hiru logela, balkoia eta ganbara. Berogailua dauka. 943 28 76 36.

Bergara. Apartamentua Zubietan. 50 m². Erdi berrituta. Ruben. 679 45 57 62.

Bergara. Erdialdean. Hiru logela, egongela, bainugela eta sukaldea. Dena kanpoaldera, ikuspegi onekin. Solairu altua, igogailuarekin. 620 18 59 06.

Bergara. Simon Arrieta kalean. 80 metro koadroko etxea salgai. 2 logela ditu, egongela, sukaldea eta balkoi ederra. Banakako berogailua du, eta baita igogailua ere. Garajea aukeran. 664 73 49 60.

Elgeta. Etxebizitza salgai. Bigarren solairua, igogailuarekin. Hiru logela. Ganbara. Aukera ona. Deitu 13:00etatik 15:00etara edo 20:00etatik aurrera. 946 81 71 97.

Elgetan. Etxebizitza salgai. 71 metro koadro. Sukaldea, komuna eta 4 logela. 13 metro koadroko trastelekua. 943 76 81 02 edo 943 76 80 29.

Eskoriatza. 90 m². Hiru logela, bi bainugela, bi terraza, trastelekua eta garaje itxia. Berogailua eta igogailua ditu. Jantzia. 607 43 84 55.

Eskoriatza. Berritua eta jantzia. 90 m², lau logela, bi bainugela, bi terraza eta berogailua. 636 57 76 13.

Gasteiz. Logela bi, egongela, sukaldea eta komun bat. Igo-

gailua eta ganbara. Hiru urte direla guztiz berritua. Solairu altua eta argitsua. Berogailu indibiduala. Jantzia. Hiri-erdian (Poliklinika eta Abenida artean). 629 75 54 22.

Legutianon etxebizitza salgai. 210.000 euro. Negoziatu egin daiteke. 945 45 52 68.

Oñati. 70 m² kuadroko apartamentua, garajearekin. Bidebarrieta auzoan. 697 59 48 30.

Oñati. Etxea salgai, leku eta egoera oso onean, sukaldea, egongela, hiruro logela, bi bainu eta ganbara. Garajea aukeran. 635 70 83 11.

Oñati. Etxea salgai, leku eta egoera oso onean. Sukaldea, egongela, hiruro logela, bi bainu, ganbara. Garajea aukeran. 635 70 83 11.

Oñati. Etxebizitza salgai Euskadi etorbidean. Lehen solairua. Eguzkitsua. Guztiaz kanpoaldera ematen du. 645 72 42 42 edo 945 14 18 17.

Oñati. Etxebizitza salgai San Lorentzo auzoan. Hiru logela, bi bainugela eta bi balkoi. 80 metro koadro. 19 metro koadroko edo 35 metro koadroko garaje itxia aukeran. 656 74 80 47.

IRAGARKI SAILKATUAK

Egubakoitz eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

943 25 05 01 sailkatuak@goiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 18 EURO (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO. PREZIO BEREZIA: EGUBAKOITZETAKO ETA ASTELEHENEN GOIENKARIAN BIETAN, ARGITARATUZ GERO 25 EURO (+BEZ).

GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sar daitezkeen operazioen erantzukizunik.

203. ERRENTAN EMAN

Antzuola. Sagasti kalean. Deitu 650 55 44 98 telefonora.

Arrasate. Uribe auzoan. Deitu 677 53 68 46 telefonora.

Bergara. Auto txikiendako garajea errentan ematen dut, Burdiñatan. 943 76 13 33.

Bergara. Ibargarai kalean. 16 metro koadro. 943 76 74 19.

Oñatin. Bidebarrieta kalean garajea errentan ematen da. 695 75 85 26.

3/ LOKALAK

301. SALDU

Oñati. San Lorentzo auzoan dagoen lokala salgai. 605 77 15 13 edo 605 71 84 94.

303. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Bulegoak alokagai Otaloran 18an. Uarkapeko arkupean. 638 17 93 63.

304. ERRENTAN HARTU

Debagoiena. Taberna edo jate-txe bat jartzeko lokal bat hartuko nuke errentan. Deitu 665 75 52 11 telefonora.

4/ LANA

402. ESKAERAK

Arrasate. 23 urteko mutila gertu zerbitzari lanak edo beste lan batzuk egiteko. 695 78 63 11 edo 686 62 03 56.

Arrasate. Emakume erizaina gertu pertsona nagusiak gauze edo egunez zaintzeko. Orduka garbiketara lanak egiteko ere gertu. 629 94 15 72.

Arrasate. Emakume gertu garbiketara lanak egiteko eta pertsona nagusiak zaintzeko. Lanaldi osoa egiteko prest. Esperanza. 678 80 96 01.

Arrasate. Emakume gertu pertsona nagusiak zaintzeko edo garbiketara lanak egiteko. Lan egin behar duen etxean bizitzeko ere prest dago. Liceth. 659 34 68 05.

Bergara. Umeak edo nagusiak

zaintzeko gertu emakume bat. 638 53 38 58.

Bergara. Emakume gertu etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko. 671 33 75 63.

Bergara. Emakume gertu garbiketara lanak edo umeak zaintzeko. 610 82 02 17.

Bergara. Emakume gertu garbiketara lanak edo umeak zaintzeko. Eskarmentu handikoa. 618 93 59 29.

Bergara. Neska boliviarra goizez lanerako gertu. Adinekoak edo umeak zaintzen zein garbiketara lanetan. 657 71 51 94.

Bergara. Umeak edo nagusiak zaintzeko emakume bat gertu. 648 83 42 34.

Debagoiena. Emakume eskaintzen da pertsona nagusiak eta umeak zaindu edo garbiketara lanak egiteko. Arratsalde lan egingo luke. 628 82 96 56.

Debagoiena. Haur Hezkuntza ikasketak egiten diharduen neska gazte bat arratsalde umeak zaintzeko gertu. Eskarmentua. Maddi. 652 77 89 15.

Debagoiena. Nagusiak zaindu edo beste edozein lan serio egiteko gertu. 610 93 49 71.

Debagoiena. Neska arduratsua lanerako prest. Umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketara lanak egingo nituzke. 664 66 12 49.

Debagoiena. Neska eskaintzen da tabernari edo zerbitzari lanak egiteko, baita garbiketara lanak egiteko ere. 676 82 24 31.

Emakume euskalduna umeak zaintzeko gertu. 630 86 84 32.

Emakume gertu, etxean bertan bizi izaten, lanak egin, adinekoak edo haurrak zaindu, nahiz ostalaritzan (sukaldean) lan egiteko. Arrasaten, Aretxabaletan edo Bergaran. 943 79 81 01 edo 659 36 88 33.

Jostunak konponketa-lanak egingo lituzke: arropa-barrenak, kremailerak, etab. Deitu 699 34 86 88 telefonora.

Mutil batek ingeles eta frantsesko eskolak ematen ditu, etxez etxe. 699 34 86 88.

Oñati. Esperientziadun pertsona prest ostalaritzan lan egiteko edo pertsona nagusiak zaintzeko. Deitu 606 29 81 97 telefonora.

5/ IRAKASKUNTZA

502. EMAN

Matematika, kalkulu, ingeles, mekanika eta fisikako laguntza eskolak ematen ditut. Batxilergo eta unibertsitate mailan. Marco. 649 63 23 24.

6/ MOTORRA

601. SALDU

Audi A-3 kotxea. 699 49 14 37.

BMW 530 diesel. Telefonoa dauka instalatuta. Kontsumo txikia. Egoera onean. 655 74 34 14.

Citroen ZX 1.600. 90.000 km. 3.000 euro. 650 56 87 79.

Citroen C5 autoa salgai. 2.0 eta 16V. 4 urte eta 36.000 km. 11.500 €. 661 23 48 07.

Fiat Bravo. Prezio ona. 943 76 15 76.

Furgoneta salgai. Iveco Dailly Unijet markakoa. 40.000 km. 3.500 €. 659 44 75 08.

Honda 250 quada salgai. 2002koa. Oso egoera onean. 652 70 57 66.

Karabana. Knaus 550. 2006koa. 6 plaza. Aire girotua eta estrak. 652 77 73 27.

Peugeot 206. Urdina, gasolina, 30.000 km. 652 75 50 11.

Peugeot Boxer Isotermo salgai. 943 79 34 23.

Scooter Suzuki Katana R 50 cc salgai. 1999koa. Gutxi erabilia. Bi kasko. 943 76 36 63.

Seat 127 salgai. Egoera onean. 943 76 46 90.

Volkswagen Passat 1.8 autoa salgai. Gasolinazkoa. 685 75 61 34.

7/ ANIMALIAK

703. EMAN

Hamsterrak opari egiten ditut. 609 51 93 67.

Kalean aurkitutako txakurkumea. Laborari eta euskal artzain nahasketak. Arra. 617 24 29 95.

Txakurra opari egiten dut. Urtebete dauka. Arra. 943 76 64 65.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Aspes hozkailu konbia salgai. 699 72 48 91 edo 680 44 91 61.

Bergara. Lursaila salgai. 10.000 m². 678 72 75 72.

Bigitarra saltzen ditut, biak oso egoera onean. Epiphone Les Paul Custom, Gibson pastillak aldatu berri ditu (500 euro). Fender Stratocaster USA (700 euro). 635 74 09 70.

Inbaurerologikoak salgai. Kiloa hiru eurotan. 943 78 61 92 edo 943 76 64 65.

Karabana salgai Bañaresko kanpian. Sukaldea aparte dauka. 1.200 euro. Marian. 669 78 69 63.

Koltxoia eta somiera salgai. hankekin. 90x180. 605 72 64 43.

Masajeak emateko mahaia salgai. Ia erabili gabe. Altueran erregulagarria eta tolesgarria. Larru beltzezkoa. 300 euro. 943 79 01 12 edo 680 35 04.

Peavey baxua salgai. 2002an erosi. Egoera onean eta nahiko merke. 638 46 72 13.

Sofa. Ia berria dagoen sofa salgai. Egoera onean. Prezio interesgarria. 669 49 61 62.

Sony telebista. 32 hazbete eta 100 hertz dituen telebista panoramikoa prezio interesgarrian saltzen dut. Kristalezko eta aluminiozko altzaria barne. 607 63 48 88.

Sukalderako mahaia salgai. Neurria: 90x90. Guztiz zabaltzen da. 617 17 15 88.

Trikitia salgai. Beltza. 1.200 euro. 605 77 14 67.

803. EMAN

Arratoi-txakur bat ematen da. Urtebetekoa. 943 76 64 65.

806. GALDU

Bergara. Astelehenean 400 euro galdu nituen Mariaren Lagundiaren inguruan. 943 76 39 93.

Fujifilm kamera digitala galdu nuen azaro bukaeran Aretxabaleta edo Arrasaten. 665 71 46 26.

Giltzak galdu nituen Lanbide Eskola inguruan. 943 79 39 42.

Oñati. Errekalde auzoan edo Moia kalearen inguruan giltzak galdu ditut. 650 27 05 78.

807. AURKITU

Antzuola. MP3 aparailu bat aurkitu dut. Deitu 943 78 70 96.

808. BESTELAKOAK

Arrasate. Uretako kefir-a duen norbaitekin harremanetan jarri nahi nuke. 695 78 52 49.

Bergara. Gabon zahar gauean, neska baten txaketa beltza eraman eta haren lekuan beste bat laga zuen norbaitek Ganbara tabernan. 943 76 13 33.

LAN ESKAINTZA

Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatibak

KAZETARIA

kontratatu nahi du bertako hedabideetan aritzeko

Eskatzen da:

- Euskaraz idazten maila ona izatea.
- Ordenagailuak erabiltzen jakitea.
- Gidatzeko baimena eta autoa edukitzea.

Eskaintzen da:

- Lan kontratua.
- Etorkizun handiko proiektuetan partaide izatea.
- Lanpostua lortzen ez duenak Goiena multimedia enpresaren (prentsa idatzia, irratia, telebista eta telematika) lan-poltsa osatuko du.

Interesatuok bidali curriculum-a, 2007ko urtarrilaren 15a baino lehen, ondoko helbidera: Goiena Komunikazio Zerbitzuak Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE edo admi@goiena.com

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

Urtarrilaren 8a:
113 zozketa

ASTELEHENEN GOIENKARIA
Harpidedunen
txokoa

Sariak astero!

Astelehenean, urtarrilak 8, sari hauek izen-abizenak izango dituzte. Zeu izan zaitezke sari hauen irabazleetakoa bat!

113 zozketako saridunak

PAMIELA argitaletzeko liburu sorta bat
• Anton Zumalde Ibabe (Oñati)

Zortzi sarrera, urtarrilak 12an, ELGETAKO ESPALOIAn, DANBAKA MUSIKA LEHIAKETAn finalarako. (Saridun bakoitzari bi emango zaizkio)

- Kontxi Zubizarreta San Vicenta (Arrasate)
- M. Asun Zubimendi Zabala (Bergara)
- Ramon Barrutia Heriz (Aretxabaleta)
- J. Luis Arregi Irastorza (Antzuola)

DANBAKAKo kamiseta bat

- Iratxe Diez Iturrikastillo (Bergara)

114 zozketako sariak

• **PAMIELA** argitaletzeko bi liburu sorta.

Harpidetza sustatzeko eginiko kanpainako irabazleak

- Juan Mari Iturrospe (Oñati) - Argazki kamara
- Iñigo Biain (Oñati) - DVDa
- Eteo kafetegia (Oñati) - DVDa
- German Gonzalez de Martin (Aretxabaleta) - Argazki kamara
- Ainhoa Kortazar (Eskoriatza) - Argazki kamara
- David Blazquez (Oñati) - MP3a
- Karlos Etxaniz (Bergara) MP3a
- Roberto Jauregi (Bergara) MP3a
- Miren Arregi (Oñati) MP3a

Baldintzak

- *Asteleheneko Goienkaria*-ko harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51
09:00etatik 18:00etara.

Harpidetza kuota:

37 euro
2007 bukaera arte

ASTELEHENEN
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

astea GOITBn

Astelehena, 8



> **Marrazki bizidunak: 'Sherlock Holmes' 13:20**

Eguerdiaren ez ezik gauean ere ikusi ahal izango dituzte etxeko txiki-ek Sherlock Holmes txakurra- ren eta bere lagun- tzaileen istorioak.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Teknopolis.
- 14:15 Mandio.
- 14:45 Albisteak.
- 15:15 Ilunpean.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Bizitegia.
- 16:00 Klip@k.
- 16:15 Jazmina.
- 16:45 Albisteak.
- 17:15 Marrazki bizidunak.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Berbaire.
- 18:15 Eltze beroa.
- 18:45 Albisteak.
- 19:15 Danbaka.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Harmailatik.
- 21:45 Gaurkoak.
- 21:47 Erreportajea.
- 22:15 Hasiberriak.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Didjeridu.
- 23:45 Gaurkoak.
- 23:47 Ikusmira.
- 00:15 Emisio amaiera.

Martitzena, 9




> **'Hasiberriak' teleaioaren kapitulua 15:47**

Donostiara ikastera edo lanera joandako hamar gazteren gorabeherak ikusteko aukera izango da teleaio gazte honen bidez.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak: Nonochan.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Harmailatik.
- 14:15 Erreportajea.
- 14:45 Albisteak.
- 15:00 Didjeridu.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Hasiberriak.
- 16:15 Ikusmira.
- 16:45 Albisteak.
- 17:15 Marrazki bizidunak.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Ilunpean.
- 18:15 Bizitegia.
- 18:30 Klip@k.
- 18:45 Albisteak.
- 19:15 Harmailatik.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak: Nonochan.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Berbaire.
- 21:45 Gaurkoak.
- 21:47 Danbaka.
- 22:15 Hasiberriak.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Mandio.
- 23:45 Gaurkoak.
- 23:47 Harmailatik.
- 00:15 Emisio amaiera.

Eguaztena, 10



> **'Berbaire': gaurkotasuneko gaiak eztabaidan 23:15**

Gorka Etxabe kazetariak gidatu- tako eztabaida saio- an gaurkotasune- ko politika zein gizarte gaiak izan- go dituzte hizpide gonbidatuek.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Berbaire.
- 14:15 Danbaka.
- 14:45 Albisteak.
- 15:15 16mm.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Hasiberriak.
- 16:15 Mandio.
- 16:45 Albisteak.
- 17:15 Marrazki bizidunak.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Harmailatik.
- 18:15 Erreportajea.
- 18:45 Albisteak.
- 19:15 Danbaka.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Erreportajea.
- 21:45 Gaurkoak.
- 21:47 Erreportajea.
- 22:15 Hasiberriak.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Berbaire.
- 23:45 Gaurkoak.
- 23:47 Erreportajea.
- 00:15 Emisio amaiera.

Eguena, 11



> **Euskal film laburrak ikusgai '16 mm.' saioan 18:15**

Euskal zinegile batek egindako film laburra eman- go dute saio hone- tan, eta filmaren zuzendariarekin elkarriketa egin- go dute.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak: Nonochan.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Erreportajea.
- 14:15 Erreportajea.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Teknopolis.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Erreportajea.
- 16:15 Ikusmira.
- 16:45 Albisteak.
- 17:15 Marrazki bizidunak.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Eltze beroa.
- 18:15 16mm.
- 18:45 Albisteak.
- 19:15 Bizitegia.
- 19:30 Klip@k.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak: Nonochan.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Berbaire.
- 21:45 Gaurkoak.
- 21:47 Danbaka.
- 22:15 Didjeridu.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Erreportajea.
- 23:45 Gaurkoak.
- 23:47 Ilunpean.
- 00:15 Emisio amaiera.



> **Gazteen informazioa 'Didjeridu'-n 15:47**

Sexologia eta Interneten gaineko atalez gain, ibar- reko gazte bati egin- dako elkarriketa izan- go du itxura modernoko saio honek.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Berbaire II.
- 14:15 Danbaka.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:15 Eltze beroa.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Didjeridu.
- 16:15 Hitz bitan.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:15 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Erreportajea.
- 18:15 Erreportajea.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:15 Erreportajea.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Teknopolis.
- 21:45 Gaurkoak.
- 21:47 Mandio.
- 22:15 Ilunpean.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Berbaire II.
- 23:45 Gaurkoak.
- 23:47 Jazmina.
- 00:15 Emisio amaiera.

arrasate irrati

FM 107.7

> **Elkarriketa: Amaia Diaz de Monasterioguren 11:10**

Gabon jaietako otorduetan egindako gehiegikeria guztien ondoren, gorputza bere onera etortzeko zer jatea gomendatzen duen azalduko digu Amaia Diaz de Monasterioguren dietista oñatiarrak.

Astelehenetik egubakoitzera

- 10:00-12:00 Igo autobusera!
- Albisteak
- Prentsaren errepaso.
- Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
- Meteorologiaren geltokia (Pello Zabala)
- Elkarriketak
- Kirolak
- Lorategiaren geltokia
- Zozketak
- Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 71 17 31)
- 12:05 Izarren ordua: abesti ezagunak
- 13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
- 14:00 Igo autobusera! (errep.)
- 17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra.
- 17:15 Zorion agurren tarte (errep.)

Martitzena, eguaztena eta eguena
20:00 Danbaka

Zapatua

- 10:00 Asteko gainbegiratu.
- Astean barrena egindako elkarriketen eta gainontzeko edukien laburpena.

Domeka

- 10:00 Asteko gainbegiratu.

gertutik



Larraitz Zeberio
Kazetaria eta aurkezlea

"Nire urtebetetzea ospatuko dut familian datorren asteburuan"

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA
GOITBko *Berriak* saioko aurkezlea da Larraitz Zeberio, irundarra jaiotzez baina Elgetako bizilaguna orain. Horrez gain, *Goienkaria*-ko Elgetako berri- mailea ere bada. Gabonez, lanaz... kontu- txo batzuk kontatu dizkigu.

Olentzero eskuzabala izan da zurekin?

Ez naiz kexu. Bi maleta handi eka- rri dizkit eta pozik nago. Antza, baze- kien nire motxila zakarrontzira bota- tzeko moduan zegoela. Askotan egi- ten dut Elgetatik Irunerako bidaia, eta orain elegante ibiliko naiz atze- ra eta aurrera.

Zure ustez, zein izan da 2006ko albistea Debagoienean?

Debagoieneko Ospitalea handitu eta berritu behar dutela albiste garrantzitsua da; denondako, gaine- ra. Izan ere, Debagoienak ez du gutxiago merezi.

Oporretan, deskonektatu egiten duzu guztiz, ala jarraitzen dituzu formal-formal albistegiak?

Ez bata, ez bestea. Oporretan des- konektatzen saiatzen naiz, baina ez zait munduan galduta ibiltzea gus- tätzen. Azkenean, irratiaren bat piz- tea edo egunkariren bati gainbegi- ratu bat ematea izaten da ohikoena.

Lan egiteko, telebista gustatzen zaizu; eta informatuta egoteko?

Zazpi hilabeteko ume batekin, aspaldi honetan gutxiago jarraitzen ditut telebista eta irrati. Prentsa ida- tzia ondo datorkit, eskura baitut unetxoren bat sortzen zaidanean. Eta Internetera ere gero eta gehiago jotzen dut.

Datorren aste bukaerarako planik badaukazu?

Nire eguna da datorren astean, eta pentsatzen dut asteburuan ospa- tuko dugula familia eta lagun arte- an. Zerbait antolatu behar dut.

Astea indartsu hasteko, zer gosaltzen duzu astelehenetan?

Aldrebes nabil, antza. Nik aste- buruetan egiten ditut asteko gosari- rik onenak. Astean ez bezala, denok batera gosaltzen dugu asteburuetan, eta denboraz ere hobeto ibili ohi gara orduan.

asteko hitzorduak

Haurrendako antzerkia




ARRASATE

> **'Robin eta Hood' antzezlan hilaren 13an, 17:00etan, Amaia antzokian**

Robin Hood mendeetan zehar oso estimatua izan den pertsonaia da, batik bat, gaztetxoengandik. Gorakada antzerki taldeak oraindik ere bizirik dirauen pertsonaia dela erakutsiko du zapatuan, 17:00etan, Amaia antzokian.

Hitzaldia



ELGETA

> **Paddy Rekaldek The Clash taldeari buruz idatzitako liburua aurkeztuko du**

The Clash: punk, rock and roll, reage matxinada liburua aurkeztuko du Elgetako Espaloia kafe antzokian. Eguenean izango da hori, 20:00etan. Rekaldek bideoaz lagunduta egingo du liburuaren gaineko solasaldia.

Erakusketa



BERGARA

> **BEKE elkarteko emakumeek eskulan erakusketa irekiko dute Aroztegin**

Bergarako Emakumeen Kultura Elkartek eskulan ikastaroa irekiko du egubakoitzean, Aroztegi aretoan. Aurreko ikasturtean barrena egindako lanak jarriko dituzte ikusgai hilaren 21era arte.

kuskuxeroa



Arantzazu Ezkibel

Aulkia ez galdu guran urte berrian

Gabon egun hauetan hainbat ekitaldi egon da gurean. Esaterako, Gabon gauean **Olentzero** etorri zitzaigun bisitan. Azkenaldian ez bezala, aurten Olentzero bakarria ibili da Oñatiko kaleetan. Eskertuko zuten, bai, umeek. Ez dakit gurera nola heldu zen Olentzero, baina bai nondik etorri zen: Mungiatik. Noiztik bizi da Olentzero Mungian? Telebistak asmatzen ez duena...

Baina utz ditzagun kontu zahar horiek alde batera eta begiratu diezaiogun urte berriari. Egubakoitzean ber-

"Egoitz Aizpurua gai jartzaileak bertsolariak aulki jokoan jarri zituen Oñatiko saioan"

tsoak izan genituen Zubikoa kiroldegian. Istripu txiki baten ondorioz, **Maialen Lujanbio** ez zen saiora iritsi. Beste bertsolariak, baina, ondo bete zuten Lujanbiok utzitako lekua. Saioa aulki bat gehiagorekin hasi zuten, baina bukaeran aulki faltan izan ziren. **Egoitz Aizpurua** gai jartzaileak puntuka aulki jokoan jarri zituen bertsolariak! Haiek antxintxikak egin zituztenak...

Bukatzeko, labetik atera berri, txutxu-mutxu bero-bero bat: otsailean, Debagoieneko auzo batean, orgia bat egingo ei dute. Baldintza bakarria arropa zaharrekin joatea izango da. Hori bai, kuskuxeroak ez dira onartzen. Beraz, ezingo dizuet bertan gertatzen denaren berri eman.

zorion-agurrak



ARRASATE
Amina Karbal
Abenduaren 16an, 39 urte. Zorionak eta urte askotarako Youssef, Hamit Achraf eta Ichraq-en partetik.



ARRASATE
Alai Arregi
Abenduaren 25ean, 9 urte. Zorionak eta muxu handi bat etxeko guztien partetik.



ARRASATE
Iraitz Gutierrez Kortabarría
Abenduaren 26an, 11 urte. Zorionak eta muxu handi bat etxeko guztien partetik.



ARRASATE
Josu Alonso
Abenduaren 30ean urtebetetzea. Berandu baina ziu! Zorionak eta urte askotarako Goienako lan-kideen partetik!



ARRASATE
Mireia Cabrera
Abenduaren 31n, 8 urte. Zorionak maitia! Muxu handi bat. Zure familiaren partetik!



ARRASATE
Nora Justinne
Abenduaren 31n, 3 urte. Zorionak eta muxu handi bat. Amatxo, aitatxo eta ama eta aita puntakoak



ARRASATE
Candido Sanchez
Urtarrilaren 1ean, 44 urte. Zorionak eta urte askotarako. Zure seme Youssef eta Hamiten partez.



ARRASATE
Maider Zubillaga
Urtarrilaren 7an, 9 urte. Zorionak eta muxu handi bat Alazne eta zure lagun guztien partetik.



ARRASATE
Ediobert de Gonzalez
Urtarrilaren 8an, Zorionak eta urte askotarako. Maite zaitut. Jacobo.



ARRASATE
Lander Lopez Kortabarría
Urtarrilaren 10ean, 30 urte! Zorionak eta urte askotarako. Zorionak etxeko danon partetik!



BERGARA
Gorka Domenech Iñarra
Urtarrilaren 8an, 2 urte. Zorionak eta muxu handi bat. Etxeko en partetik.



BERGARA
Maialen Verguizas Arroitauregi
Urtarrilaren 9an, 6 urte. Zorionak Martinen eta gurasoen partetik!



ARETXABALETAKO
Miriam Encina
Abenduaren 26an, 4 urte. Zorionak eta muxu handi-handi bat. Etxeko guztien partetik.



ESKORIATZA
Josu Pagaldai
Abenduaren 19an, 23 urte. Zorionak eta urte askotarako guapisimo! Etxekoak eta aldamenekoak.



ESKORIATZA
Jone Azkargorta
Abenduaren 20an, 5 urte. Zorionak eta urte askotarako. Muxu handi bat polit hori! Etxekoak.



ESKORIATZA
Mikel Cabeza
Abenduaren 22an, 2 urte. Zorionak eta muxu handi-handi bat. Etxeko guztien partetik.



ESKORIATZA
David Garcia
Urtarrilaren 7an urtebetetzea. Zorionak! Domekan 23 urte. Urte askotarako etxeko eta koadrilako en partez



ESKORIATZA
Borja Garcia
Urtarrilaren 11n urtebetetzea. Zorionak! Ia hasi dezakezu albañil lanetan! Koadrilako en partetik



ESKORIATZA
Oskar Gomez
Urtarrilaren 12an urtebetetzea. Zorionak eta urte askotarako. Zure koadrilako en partetik.



OÑATI
Leire Zelaia Arrese
Urtarrilaren 5ean, 9 urte. Zorionak eta muxu handi-handi bat. Etxeko guztien partetik.



OÑATI
Edurne Galdos
Urtarrilaren 12an, 27 urte. Zorionak eta muxu handi bat. Zure koadrilako en partetik!

asteburuko albuma



Gabonetako zozketa.

Juan Jose Legorburu izan da aurtengoan zorteduna. Bergarako Athletic zaleen taldeak Gabonetako otzara zozketatu zuen eta bere zenbakia izan zen sariduna. Legorburu pozik egongo da, baita Athletic zale guztiak ere, asteburuan irabazi egin baitu partidua euren taldeak.




Saria Goikobalurendako.

Oreteretan egindako Gabon kantuen txapelketan, umeen atalean, Arrasateko Goikobalu B taldeak urrezko saria lortu du, eta Goikobalu A-k, brontzezkoa. Amaia Aboitz eta Rakel Murgiondo zuzendariak zorionak eman nahi dizkiete Goikobaluko partaideek.

hildakoak

- Isabel Etxebarrieta Madinabeitia. Arrasaten, urtarrilaren 6an. 85 urte.
- Brigida Monje Garcia. Arrasaten, urtarrilaren 6an. 100 urte.



URTEURRENA

Eugenia Etxebarria Urzelai

Arrasaten hil zen 2006ko urtarrilaren 7an, 95 urte zituela

Urteurren-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko sendikoen izenean.



Arrasaten, 2007ko urtarrilaren 8an.

ESKER ONA

Ines Larrañaga Telleria

Julen Arzelus "Txariduna"ren alarguna

Bergaran hil zen 2006ko abenduaren 21ean, 86 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2007ko urtarrilaren 8an.

jaiotakoak



Unai eta Maddi Lasa Lasagabaster

Eskoriatza > 2,920 eta 2,490 kg. Abenduaren 18a. Gurasoak: Rosa (Eskoriatza) eta Asier (Eskoriatza). Argazkian amarekin eta Iñaki anaiarekin.

2007 urteko lehena Euskal Herrian



Ane Miguelez Zortuna

Arrasate > 3,640 kg. Urtarrilaren 1a. Gurasoak: Antonia (Arrasate) eta Angel (Arrasate). Argazkian amarekin.



Unax Murgizu Rodriguez

Bergara > 3,360 kg. Abenduaren 29an. Gurasoak: Maider (Bergara) eta Pitto (Bergara). Argazkian ama eta anaia Hodeirekin.



Ander Roscha Sandor

Antzuola > 3,970 kg. Abenduaren 26a. Gurasoak: Nicoleta (Antzuola) eta Mijai (Antzuola). Argazkian umea kuman.



Ibai Tamayo Kortabarria

Arrasate > 3,440 kg. Abenduaren 8an. Gurasoak: Garbiñe (Arrasate) eta Dani (Bilbo). Argazkian umea lo.



Gorka Mondragon Aginalagalde

Bergara > 3,540 kg. Abenduaren 17a. Gurasoak: Itsaso (Bergara) eta Jose Ignacio (Bergara). Argazkian arreba Malenekin.



Iker Gartzia Lonbide

Aretxabaleta > 2,700 kg. Abenduaren 18a. Gurasoak: Txaro (Aretxabaleta) eta Luis (Aretxabaleta). Argazkian umea amaren besoetan.



Lur Lamadrid Gartzia

Arrasate > 3,120 kg. Abenduaren 24a. Gurasoak: Rakel (Arrasate) eta Iñaki (Arrasate). Argazkian aitaren besoetan.



Cristian Bellon Bastia

Bergara > 3,610 kg. Abenduaren 25a. Gurasoak: Joana (Ermua) eta David (Bergara). Argazkian umea kuman.



Izaro Mateos Escudero

Aretxabaleta > 3,200 kg. Abenduaren 25a. Gurasoak: Isa (Arrasate) eta Javi (Aretxabaleta). Argazkian umea kuman.



Aiora Urizar Fernandez de Ganboa

Arrasate > 3,300 kg. Abenduaren 26a. Gurasoak: Arantxa (Arrasate) eta Aitor (Arrasate). Argazkian umea kuman.



Laia Davila Caballero

Arrasate > 2,500 kg. Abenduaren 26a. Gurasoak: Nuria (Arrasate) eta Juanan (Arrasate). Argazkian gurasoekin.



Ametz Olasolo Mendizabal

Elgeta > 3,200 kg. Urtarrilaren 4a. Gurasoak: Lierni (Elgeta) eta Josu (Bergara). Argazkian amama Mertzerekin.



Gari Sarasua Arana

Aretxabaleta > 3,600 kg. Urtarrilaren 4a. Gurasoak: Leire (Arrasate) eta Josu (Aretxabaleta). Argazkian umea amarekin.



Julen Lezeta Badiola

Eskoriatza > 3,890 kg. Urtarrilaren 4a. Gurasoak: Asun (Bergara) eta Antxon (Eskoriatza). Argazkian umea kuman.




Julen Hospital Rojas

Arrasate > 3,470 kg. Urtarrilaren 6a. Gurasoak: Maribel (Arrasate) eta Felix (Bilbo). Argazkian umea kuman.



Gorka Mena Gallego

Arrasate > 3,400 kg. Urtarrilaren 6a. Gurasoak: Ana (Arrasate) eta Jose Luis (Arrasate). Argazkian umea lo.



Malen Etxaniz Jauregi

Bergara > 3,800 kg. Urtarrilaren 7a. Gurasoak: Elisabeth (Bergara) eta Roberto (Bergara). Argazkian umea kuman.

Xabi Paya > Bertsolaria eta itzultzailea; Bizkaiko Bertso Txapelduna

"Saio gehienak karteletik kanpo egin ditut hemen"

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA
Bizkaiko Bertsolari Txapelketako txapelduna da. Itzultzailea ere bada, eta HUHEZIn Idatzizko Komunikazio eta Informazioko eta Lengoiako irakaslea. Gaur hasiko ditu eskolak opor ostean, eta txapeldun izan osteko konpromisoen artean gure elkarrizketa erantzutea ere egokitu zaio.

Urte berria ondo hasi duzu?

Katarroarekin, baina gainontzean lasai, gogoz heldu diot. Abenduaren 30era arte txapela zela eta egunero izan nuen zerbait. Orain lasaiago nabil.

Gogoz, eta ikasleekin dioten bezain gogor?

Ikasleei eskatzen diet nire ikasgaietan euskaraz eta gaztelaniaz maila bera izatea. Minimoa nik jartzen dut eta minimo hori altua da. Eskatzen diet seriotasuna hizkuntzaren lanketan. Akats ortografiko batzuk baino ez dituztela egin esaten didate eta nik ezin dela bat bera ere egin. Beharbada horregatik lortu dut zorrotz fama. Nahiago dut ikasleek sustoa har dezatela fakultatean kanpoan, lanean baino.

Zenbat hizkuntza dakizkizu?

Berba egin eta uler dezaket euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez. Hiru urte eman nituen arabiera ikasten; eta italiaraz ere egin dut lanen bat.

Bertsotan zeinetan egiten duzu?

Euskaraz. Bat-bateko inprobisazioaren ezaugarriak dira musika, errima eta neurria. Euskaraz gehitzen bazaio lortzen dugu bertsolaritza. Gaztelaniaz inoiz egin dut, baita frantsesez ere. Ingelesez ere eginda nago, baina oso gutxi, errimarako zailena da.

Musikaria ere bazara?

Piano ikasketa ertainak ditut, eta zeharkako flautan, zarpigarraren mailara artekoak. Panderoa eta txistua ere jotzen ditut. Gurean presente egon da beti musika.

Orain arte Frediren anaia zinen; orain alderantziz da?

Aurreko Bizkaiko Txapelketan konpromisoa hartu nuen erakusteko ez nintzela bakarrik Frediren anaia; horrekin harro nago, baina nik ere egiten dut bertsotan. Familia garen horretan badirudi konparatu beharra dagoela.

Bidaia asko egindakoa zara?

Azken urtean, bertsolaritzaren aitzakian, bidaia gutxiago egin dut. Orain urtebeteko Santomasetan Bartzelonan izan nintzen, eta aurki berriz joango naiz. Normalean, itzultzaile joaten naiz, baina beti egiten dut bertsotan.

Gurean saio asko egin dituzu?

Gehienak karteletik kanpo, lagun handiak ditudalako inguru horretan. Fredirekin lehen bertso afaria biok kantuan ginela Arrasaten, AEDn egin genuen.




URTE BERRIA lazko pozak eta penak denak poz bihurtzea eskatu du. ARGAZKI PRESS

TEST-A

Herria: Algorta. **Adina:** 24 urte. **Ikasketak:** Itzulpen gintza eta Interpretazioan lizentziaduna. **Zaletasunak:** Bideojokoak, zinema (misteriozko filmak) eta frontenisa. **Doinu bat:** Ez dut idealik aurkitu, berriak deskubritzen nabil. **Ikusi duzun azken filma?** *Torrente III*. **Erositako azkendiskoa?** Karidadeko Benta taldearen *San Quirico*. **Zer eskatu diozu urte berriari?** Aurrekoaren pozak eta penak, poz bihurtzea denak.

www.goiena.net

Euskal Herriko gatazka behin betiko gairatzeko prozesua hilik dago, zure iritziz?



biharamuna

Juan Kruz Mendizabal

Ez dakit zer egin, zer pentsa... ez dakit

Barajaseko leherkariak bake prozesua oinarritik lehertu duela esan didate. Ez dakit zer egin, zer pentsa. Inguruko askok ezer egiteko, ezer ez pentsatzeko aukera egin du. Ez dakit zuzena den, ez dakit errazena izango ote den...

Ez dakit zer pentsatu herriko bakearen desioak halako martxa ederra hartu zuenean zergatik ez diren mugitu zerbait egin behar zutenak eta geldik geratu diren, hizketan egon behar zutenak bake mahaitik alde eta gogorkeriaren dinamika ustean berriro sartu diren.

Ez dakit politikarien esku bakarrik utzita gure orainak etorkizunik izango ote duen.



Ez dakit herriak esku hartzeko gogorik izango ote duen behin eta berriro bazter batera uzten direnean bere ametsak. ETAK ez du herriaren gogoan errespetatu nahi eta gizarte honek egunero erakusten digu ez duela egin behar diren mugimenduak egiteko bizkortasunik. ETAK ez du herriaren nahia errespetatu eta Gobernuak ez ditu etxeko lanak bete.

Ez dakit errazegi ohitu ote garen armekin jolas egiten. Erabiltzen dituenari gizatasuna kendu egin diote, eta bi errugabe etorkinei, bizitza.

Etsipenak berriro jango ote gaituen pentsatzen jarria naiz. Ez dakit...

eguraldia



MINIMOA
+07

MAXIMOA
+12

Eguna lainoan emango dugu, baina euri askorik ez du egingo. Hego haizea ibiliko da. Tenperaturak, domekan bezala.

www.euskalmet.euskadi.net

arteman

KOMUNIKAZIOA

baietz asmatu ;-)
www.arteman.org